BARRUAN, ZURE HERRIKO ALDIZKARIA




Goienkaria

EGUBAKOITZA • 2002ko abenduaren 13a • III. urtea • 90. zenbakia • Doan Bana



**Goienka2a**
'Los Gavilanes' zarzuela, gaur, bihar eta etzi, Arrasaten

**KIROLA**
Asegarce-ren bigarren mailako Lau t'erdiko finala bihar, Bergaran /10

**ALBERTO FRÍAS / EGUZKI-KO KIDEA**
*"Itsasoaren kutsaduraren %80 petroliontzien ohiko trafikoak eragindakoa da"* /7

## HEDABIDEAK: ARROSA IRRATI EKOIZPEN ZENTROA AURKEZTUKO DUTE BIHAR /5
## EKONOMIA: EUSKADIKO EKONOMIA %2 HAZIKO DELA DIO EUSKADIKO KUTXAK /5



AITOR URIZAR

## Saria ikasle onenei

Gipuzkoako hogeita bat ikasle saritu ditu Kutxak, unibertsitateko ikasketetan lortu dituzten txosten akademiko onengatik. Saritutakoen artean, gure ibarreko hiru ikasle daude: Sorne Idigoras eta Zigor Ezpeleta oñatiarrak eta Mikel Ezkurra arrasatearra, argazkian ageri dena. Hirurak ere MUko ikasleak dira. /4

**ASTEKO GAIA: HIZKUNTZA ERASOEN AURKAKO ESTRATEGIA**

# Kontseiluaren azken plana, hiru herritan

- *Ibarrean, oraingoz, Bergaran, Elgetan eta Oñatin dago abian*
- *Hainbat arlo lantzen dira: osasuna, justizia, kirolak…*

Kontseiluak Bergaran aurkeztu zuen atzo, eguena, azken egitasmoa, Ekintza Plana, eta Elgetan ere aurkeztuko du, datorren eguaztenean. Oñatin indarrean dago dagoeneko egitasmo hori.

Horren bidez, Kontseiluak euskararen normalizazioaren alde lan egiten jarraituko du, eta euskara jasaten ari den "eraso kanpaina sakonari" aurre egiteko oso ekintza zehatzak proposatuko ditu eta eragileen konpromisoa eskatuko du. /2-3

## Mahai Nazionalekoei elkartasuna adierazteko itxialdiak deitu dituzte

Itxialdiak iragarri dituzte gaurko Arrasate eta Bergarako udaletxeetan, HB, EH eta Batasuneko Mahai Nazionaleko 20 kide eta kide izandakori, tartean Jose Luis Elkoro bergararrari elkartasuna adierazteko. Iluntzean hasi eta bihar arte egingo dituzte itxialdiak. Bergaran, 13:00ak arte egongo dira itxita. Ondoren, prentsaurrekoa eskainiko dute HB, EH eta Batasuneko hautetsiek. /4



Jose Luis Elkoro.

Teknologiak bereizi egiten gaitu.
Hartu-eman pertsonalizatuak, nabarmendu



Udalaitz
Gipuzkoa etorbidea 36 • ARRASATE • 943 71 18 70
Audi

GELAN
HORMA-ARMAIRUAK



Zabaldu berria!
Kruz Gallastegi 9
BERGARA
943 76 38 10
visel ATEAK banatzaile ofiziala

**BERGARA**

### Greban hasiko dira etxez-etxeko zerbitzuko langileak

Etxez-etxeko zerbitzua eskaintzen duen Gizaintza SL enpresako langileek mugagabeko greba hasiko dute astelehenean. Lan Hitzarmena da arrazoia. Besteak beste, hiru gauza hauek eskatzen dituzte langileek: soldataren igoera, lan jardunaren murrizketa eta kontratazioak errespetatzea. Gizaintza SLk 98 herritarrei eskaintzen die zerbitzua.

DEBAGOIENA/4 • HERRIZ HERRI/5 • IRITZIA/6-7 • KIROLA/10-11 • NON-ZER/16-17 • SAILKATUAK/18 • BERRI-ZAKUA/19 • ZERBITZUAK/20 • DENBORA-PASA/21

# Ekintza Plana: hizkuntza erasoen aurkako estrategia

## *Kontseiluak Debagoieneko hiru herritan ezarriko du plana*

LEIRE KORTABARRIA

Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseiluak, bost urteko ibilbidearen ondoren, zentzu berria eman gura dio bere jarduerari. Lehen bezala, euskararen normalizazioaren eta ofizialtasunaren alde lan egiten jarraituko du, baina, oraingoan, beste estrategia baten bidetik: Ekintza Plana, hain zuzen. Egitasmo hori "eskualdez eskualde eta herriz herri" jarri nahi dute indarrean, Kontseiluko ordezkari Koldo Ibañez de Elexaldek azaldu digunez; izan ere, "Euskal Herri osoan euskararen egoera ez da berdina, eta herriz herriko analisia egin ondoren, herriz herriko estrategiak ezarri behar dira", dio.

Ekintza Plana Bergaran aurkeztu dute, hilaren 12an; 18an, Elgetan aurkeztuko dute. Azaroan, Oñatin jarri zuten indarrean, eta bigarren bilera bat egingo dute han datorren martitzenean.

**"URTEETARAKO ATZERAPENA"**

Ekintza Plana 2000. urtean hasi zen, eta aurtengo uztailaren 11n onartu eta indarrean jarri duten hausnarketa prozesu baten emaitza da. Hausnarketa horrek beste estrategia bat eskatu zuen Kontseiluaren aldetik: defentsa estrategia, hain zuzen. Honela zioen orduko diagnosiak: "Euskararen aurkako estrategia ez da kanpaina puntuala; askoz ere serioagoa eta sakonagoa da. 20 urte hauetako prozesuari azken kolpea eman nahi zaio, eta urteetarako atzerapena sortu". Horren aurkako estrategia da Ekintza Plana; baina Ibañez de Elexaldek ohartarazten duenez, "Ekintza Plana ez da sortu erasoei erantzuteko; atenporala da".

*"Euskararen egoera ez da berdina leku guztietan, eta herriz herriko estrategiak behar dira"*

*"Euskararen aurkako estrategia 20 urteotako prozesuari azken kolpea da"*

*"Herritarren partehartzea eskatuko dugu; esaterako, balkoietan ikurrak jartzea"*

**HERRITARREK ERE, ZERESAN HANDIA**

Kontseiluaren arabera, euskararen aurkako kanpainak euskararen estatus legala aldaraztea eta euskarak duen babes soziala murriztea ditu helburu. Hala, Ekintza Planaren asmoak dira euskararen estatus legal hobea eta babes sozial handiagoa lortzea eta, era berean, "erakundeek eta alderdiek euskara eta euskaldunok aintzat harraraztea".

Helburu horiek lortzeko, Kontseiluak erabaki du herrietan kanpainak egitea eta lantalde iraunkorrak sortzea. Bestalde, arloz arloko egitasmoak jarriko dituzte abian, eta hainbat jardueratako eragileei konpromiso zehatzak eskatuko dizkiete: osasun arloa ("egoera txarrenetarikoan dagoena", erakundearen esanetan), justizia, kirola, kultura… Herritarren konpromisoa ere eskatuko du Ekintza Planak: "Kirol talde handiei ez ezik, herri mailako kirolariei ere konprometitzea eskatuko diegu; bestalde, etorkizunean, beste ekintza batzuk egingo ditugu; esaterako, balkoietan ikurrak jartzea", diote Kontseiluko ordezkariek.

**TXEMA ZUBIZARRETA** / GIPUZKOAKO KOORDINATZAILEA

## *"Herriz herri lantaldeak osatuko ditugu"*

**Kontseiluak oraintsu onartu du Ekintza Plana, eta Bergaran eta Elgetan aurkeztuko dute aurki. Oñatin dagoeneko indarrean dago.**

**Zer dela eta erabaki du Kontseiluak Ekintza Plana herriz herri ezartzea?**

Euskararen normalizazioaren aurkako erasoak herriz herri gertatzen direlako eta, herriaren arabera, diagnosia desberdina delako. Hori dela eta, gure estrategia da herri bakoitzean lantalde bana sortzea eta plana aurkeztea.

**Debagoieneko beste herriren baten aurkeztu behar duzue aurki?**

Ez. Oraingoz, 30 herritan lotu ditugu lantaldeak, batik bat, Nafarroan eta Gipuzkoan. Debagoienean ez gabiltza hain indartsu.

**Aurkezpenaren ondoren, zein beste pauso emango dituzue?**

Arlotan banatu ditugu ekimenok, eta hilabete bakoitzean arlo banatan jardungo dugu. Lehenengo, osasuna ukitu dugu, hori delako txartoen dagoen sailetariko bat. Hurrengo, kirola, justizia… landuko ditugu.



Txema Zubizarreta.




GUREAN EROSTEAK SARIA DAKAR!

Eskuratu zure TXARTELA, eta jokoan dauden SARI MORDOXKA bila itzazu bertan!

Gabonetan ere, TXANDA, zure erosketetarako aukerarik egokiena.


KONTSEILUA

Kontseiluak antolatutako ekimenek eta aurkezpen publikoek euskal gizartearen arreta eta atxikimendua jaso dute.

BAI EUSKARARI ZIURTAGIRIAK

## Antzuolako Elay taldearendako, maila goreneko ziurtagiria

Debagoienean, oraingoz, bi herritan ezarriko dute Ekintza Plana. Hala ere, debagoiendarrok badugu harro egoteko arrazoirik; izan ere, Kontseiluak Euskal Herri osoan 318 Bai Euskarari ziurtagiri banatu ditu, eta sei geurean daude. Ziurtagiriak adierazten du berau jasotzen duen erakundeak euskararen normalizazioarekiko konpromisoa erakutsi duela eta horretan lanean dabilela. Eta berri on gehiago debagoiendarrondako: hiru mailatako ziurtagiriak daude (*Bidean, Guk zerbitzua euskaraz* eta *Guk zerbitzua eta lana euskaraz*), erakunde bakoitzak duen maila erakusteko, eta Antzuolako Elay taldea da, Euskal Herri osoan, maila gorena lortu duen bakarra.

ARRASATE, HERRI PILOTU

## Bai Euskarari Akordioa Herrietan planak urtebete darama gurean

Kontseiluak hainbat herri aukeratu zituen Bai Euskarari Akordioa Herrietan izeneko plana abian jartzeko, eta horietako bat Arrasate izan zen. Han, iaz, azaroan, jarri zuten abian plana, eta, une honetan, Arrasateko Euskalgintzaren Plan Estrategikoa garatzen dabiltza. Erronkak dira: Arrasateko euskalgintza artikulatzea, gizarteko arlo estrategikoak euskalduntzea, euskararen erabilera sustatzea, eta arrasatearrek euskararekiko jarrera baikorra izan dezaten lortzea. Udaberrian, gizarte osoaren aldetik konpromisoak lortzen saiatzeari ekiteko asmoa dute. Bergarako euskalgintzak ere interesa erakutsi zuen, baina azkenean ez zen onartu.

ERASO ZEHATZAK

## Nafarroako egoera da txarrena, baina EAEn ere urratzeak daude

Kontseiluak zehazki identifikatu ditu euskararen aurkako erasoak. Euren esanetan, "erasoa Euskal Herri osoan gertatzen den arren, egoerak desberdinak dira lurraldearen edo arloaren arabera". Horrela, Kontseiluak bereziki larritzat jotzen du Nafarroako egoera: "Hizkuntza politika antolatua ezarri dute han. Edozelan ere, Euskal Autonomia Erkidegoan ere eraso larriak jasaten ditu euskarak", azaltzen digu elkarteak. "Osakidetzaren aldetik, bereziki, urratze latzak jasaten ditugu, batez ere, pediatrian; baita osasun zentroetan, epaitegietan, eta abarretan ere". Hori dela eta, Medikuen Elkargoarekin jardunaldia izango dute bihar, abenduak 14, Donostian.

KONTSEILUAREN URTEURRENA

## 1997ko abenduaren 6an sortu zuten Kontseilua hainbat eragilek

Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseiluak bosgarren urteurrena bete berri du: 1997ko abenduaren 6an sortu zen, Durangon. Euskararen giza erakunde gehienek batera aritzeko konpromisoa hartu zuten, eta hori "urrats historiko" moduan jotzen du Kontseiluak; izan ere, erakunde horiek, batzuetan, jatorri eta iritzi askotarikoak dira. Ordutik hona, euskalgintzaren muin bilakatu da Kontseilua, eta euskararen egoera normalizatzea du helburu. Horretarako, bi jarduera ditu Kontseiluak: batetik, euskalgintzako erakundeen artean kohesioa bultzatzea, eta, bestetik, giza eragileak, indar ekonomikoak eta alderdi politikoak normalizazioaren alde bateratzea.

Noche y Dia
Morfeoren besoetan
Atseden Etxea

Adriano VI, 17 • GASTEIZ
Tel./Faxa: 945 21 42 24

ZURE AMETSETAKO ETXEA!

- Besaulki eta sofa etzangarriak
- Besaulki altxagarriak
- Latexezko edo tempurrezko koltxoi anatomikoak
- Doitasunezko somierrak, elektrikoak eta eskuzkoak.



ARGAZKI PRESS

HBko, EHko eta Batasuneko 68 mahaikide elkartu ziren eguaztenean Donostian, mobilizatzeko deia egiteko.

# Itxialdiak egingo dituzte ibarrean, mahaikideei elkartasuna adierazteko

*Datorren eguenean, goiz eta arratsaldez lanuzteak egiteko dei egin dute*

ENEKO AZKARATE

**HBko, EHko eta Batasuneko 70 mahaikide inguruk Euskal Herrian mobilizatzeko dei egin zuten eguaztenean. Gaurko (egubakoitza) itxialdiak iragarri dituzte eta hilaren 19rako lanuzteak. Mahai Nazionaleko 20 inputatuk Auzitegi Nazionalean egin beharreko agerraldia salatzeko deitu dituzte protestaldiak.**

Itxialdiak iragarri dituzte gaurko (egubakoitza) Arrasateko eta Bergarako udaletxeetan, HBko, EHko eta Batasuneko Mahai Nazionaleko 20 kide eta kide izandakori elkartasuna adierazteko; tartean, Jose Luis Elkoro bergararrari. Gaur, egubakoitza, iluntzean hasi eta bihar arte egingo dituzte itxialdiak. Bergaran, 13:00ak arte egongo dira itxialdian. Horren ondoren, prentsaurrekoa eskainiko dute HBko, EHko eta Batasuneko hautetsiek. Garzón epaileak Mahai Nazionaleko 20 kide edo kide izandakori ETAkoak izatea leporatu die. Horregatik deklaratuko dute datorren eguenean Espainiako Auzitegi Nazionalean. Hasiera baten, gaur zeuden deituta deklaratzera, baina epaileek atzeratu egin dute deklarazio eguna.

Protesta ekitaldiak ibarreko beste herri batzuetan ere deitu dituzte. Aretxabaletako udaletxean, esaterako, eguen iluntzerako deituta zegoen itxialdia; hainbat ikastetxe eta lantegitan ere bai.

**ARRASATEKO MUSIKA TALDEAK BAT**

Bestalde, Arrasateko 18 musika taldek "Euskal Herrian bizi duen inposizio egoera" salatu zuten martitzenean prentsaurrekoan. Musika taldeek duintasun nazionalaren alde dokumentu bateratua eman zuten ezagutzera. Era berean, datorren eguenean, hilaren 19an, egingo diren mobilizazioekin bat egin zuten musika taldeek. Lanuzteak deitu zituzten 11:00etatik 13:00etara eta 18:00etatik 20:00etara. Beste protesta ekitaldi batzuk ere egingo dituzte egun horretan Euskal Herri osoan moduan ibarrean ere.

*Jose Luis Elkorok eta gainerako mahaikideek eguenean deklaratuko dute*

**DATORREN ASTEAN DEKLARATUKO DUTE**

Jose Luis Elkorok eta Garzón epaileak inputatutako gainerako mahaikideek datorren eguenean, hilaren 19an, deklaratuko dute. Hasieran, gaurko deituta zeuden, baina atzo goizean dei bat jaso zuten esanez deklaratzeko eguna atzeratu egin dela. Epaileen arazo pertsonalengatik atzeratu da. Edozelan ere, Batasuneko legebiltzarkide Joseba Alvarezek adierazi duenez, mobilizazioak iragarritako ordu eta egunetan egingo dituzte.

# Hiru debagoiendar saritu ditu Kutxak, txosten akademiko onak edukitzeagatik

AINTZANE IRIZAR

Gipuzkoako hogeita bat ikasle saritu ditu Kutxak, unibertsitateko ikasketetan lortu dituzten txosten akademiko onengatik. Saritutakoen artean gure ibarreko hiru ikasle daude: Sorne Idigoras eta Zigor Ezpeleta oñatiarrak eta Mikel Ezkurra arrasatearra; hirurak ere Mondragon Unibertsitateko ikasleak dira. Sornek Administrazio eta Enpresa Zuzendaritzako ikasketak egin ditu; Zigorrek Humanitate Zientzietako ikasketak egin ditu HUHEZIn; eta Mikelek, azkenik, Ingeniaritza Mekanikoko ikasketak. Euretako bakoitzak 1.350 euroko saria jasoko du.

# Ibarreko ikastoletako neska-mutikoak Gatzagan elkartuko dira datorren eguenean

E.A.

Ibarreko ikastoletako DBHko laugarren mailako ikasleak Leintz Gatzagan elkartuko dira datorren eguenean. Hain justu, Bergarako Aranzadiko, Oñatiko Txantxikuko, Leintz aldeko Arizmendiko eta Elgoibarko ikastoletako 15 urteko neska-mutikoak elkartuko dira, 300 bat lagun. Helburua da elkar ezagutzea, eta, horretarako, hainbat ekitaldi antolatuko dituzte: goizean barrena, mendi irteera egingo dute; eguerdian, txistorra-jana; bazkaldu ere han bazkalduko dute; eta arratsaldean, herri jolasak egingo dituzte.



AITOR URIZAR

## Arnaldo Otegi, Ibarretxeren planaren aurka

Arnaldo Otegi Arrasaten izan zen joan den egubakoitzean. Espainiako Konstituzioaren Eguna ospatzearen aurka dauden Eskola Politeknikoko Ikasle Abertzaleak taldekoek gonbidatuta etorri zen. Konstituzioa eta gaurkotasuneko beste kontu batzuk izan zituen berbagai Otegik Monterronen. Gernikako Estatutuaren aurka agertu ziren moduan, orain, Ibarretxeren planari ere ezetza emango diotela adierazi zuen. /E.A.

KANPAZAR ERRETEGIA

Astelehenetik ostiralera
**EGUNEKO MENUAK**

Espezialitateak:
**okela eta arraina parrillan**

**NEGUKO ORDUTEGIA**
Astelehenetan, astearteetan, eta asteazkenetan:
07:00etatik 19:00etara
Ostegunetan eta ostiraletan:
07:00etatik 23:00etara
Larunbatetan eta igandeetan:
10:00etatik 23:00etara
Abenduaren 25etik urtarrilaren 6ra arte (biak barne) itxita

**94 658 29 12 • 669 30 26 86 / Kanpazar gaina / ELORRIO**



AITOR URIZAR
Arrasate Irratiak ere bat egingo du Arrosa Irrati Ekoizpen Zentroarekin.

# Lankidetzan, euren beharrei aurre egingo diete irrati txikiek

OXEL EROSTARBE

**Bihar, hilak 14, Arrosa Irrati Ekoizpen Zentroaren aurkezpen ofiziala egingo dute, Andoaingo Martin Ugalde Kultur Parkean. Egitasmoa 30 irratiren ekimenen ondorioz sortutako proiektua da, eta tartean daude Arrasate Irratia eta Txapa Irratia.**

Arrosa Irrati Ekoizpenerako Zentroa sortzeko ideia 2001eko maiatzean jaio zen, Barrian, *Herria Mugi!* ekimenaren baitan egin zuten topaketan. Guztira, 30 irratik jardun dute proiektua sustatzen, eta tartean izan dira Arrasate Irratia eta Txapa Irratia ere. Izaera askotariko irratiek osatzen dute egitasmoa: irrati libreak, tokian tokikoak, interes askotarikoak...

Euskal Herriko irratien arteko harremanak sakondu, haien arteko lankidetza bultzatzea eta euskara sustatzea da egitasmoaren helburua. Zentroaren eskaintza nagusia irratien arteko irratsaioen trukaketa bultzatzea da. Horretarako, hiru eginkizun bideratuko ditu: emisio komunak, eguneroko magazina eta programen bankua.

Proiektua barrutik ezagutzeko Andoainera joango dira datorren astean Arrasate Irratiko eta Goienako arduradunak. Arrasate Irratiak Durangoko Azoka eta Korrika zirela-eta egindako emisioetan parte hartu du. Ekoizpen Zentroaren proiektua interesgarria da eta eskaintzen dituen gainerako zerbitzuetan parte hartu erabakitzeko, hobeto ezagutu nahi dute proiektua.

*30 irratik jardun dute proiektua sustatzen; tartean, Arrasate Irratiak eta Txapa Irratiak*

# Abenduaren 20an Galiziako kostaldea garbitzera joateko boluntarioak nahi dituzte

E.A.

*Prestige*-k Galizian eragin duen hondamendia dela eta, Muxiako kostaldea garbitzera joateko boluntarioak nahi dituzte. Abenduaren 20tik 23ra bitarteko asteburuan egingo dituzte garbiketa lanak.

Galiziako herriari elkartasuna adierazi eta itsasertza garbitzeko lanetan laguntza eskaintzea helburu duen ekimena MUko Eskoriatzako Fakultateak bultzatu du. Autobusa, mantenua eta lo egiteko lekua lotuta dituzte, baina beharrezkoa izango da boluntarioek lo egiteko zakua, esterila eta jantzi egokiak eroatea. Lanerako materialak Coruñako Unibertsitateak lortuko ditu. Eta laguntzaileei asegurua egingo dietenez, beharrezkoa izango da, izena eta abizena zehazteaz gain, NA zenbakia ere zehaztea. Interesa dutenek Eskoriatzako Fakultatera dei dezakete

## BAILARAN LABUR

### Urkuluk edukieraren %85 du beteta

Urkuluko urtegiak edukieraren %85 du beteta. Orain dela astebete, aurreko asteko martitzenean, hain justu ere, edukieraren %70 zuen beteta. Hortaz, zazpi egunean asko bete da Aretxabaletako urtegia. Joan den asteko euriteek eragin dute ur maila igotzea. /E.A.

### HUHEZIko bost titulu homologatu ditu Jaurlaritzak

Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak HUHEZIn ematen diren graduatu ondoko bost titulu homologatu ditu. Aurrerantzean, master horietako ikasleek, Mondragon Unibertsitatearen tituluaz gain, Jaurlaritzarena ere jasoko dute. Honako bost tituluek jaso dute homologazioa: Informaziorako eta Komunikaziorako Teknologiak Formazioan masterra, Hezkuntza Erakundeen Zuzendaritza masterra, Hizkuntzen Kudeaketan aditua, espezialitatea Audizioan eta Hizkuntzan eta espezialitatea Pedagogia Terapeutikoan. /E.A.

### Errusiar bat onena Akordeoi Lehiaketan

Sergei Osokin errusiarrak irabazi zuen Arrasateko Nazioarteko X. Akordeoi Lehiaketa. Bigarren saria beste errusiar batek irabazi zuen: Alexander Selivanov-ek. Iban Galdosendako izan ziren hirugarren eta ikus-entzuleen Kutxa sariak. Nazioartekoarekin batera, Gipuzkoako Akordeoi Lehiaketa ere jokatu zen. Unai Mendikute, Olatz Ugarte eta David Gordo izan ziren onenak. /E.A.

### Euskadiko Kutxak dio ekonomia %2 haziko dela

Euskal ekonomiaren azken 25 urteotako bilakaera aztertu du Euskadiko Kutxaren txosten batek. Horren arabera, oso bilakaera ona izan du Euskadiko ekonomiak, enplegu mailak eta barne produktu gordinak gora egin dutelako, eta Europako batez besteko errenta maila gainditu delako. Bestalde, datorren urtean Euskadiko ekonomia %2 haziko dela dio txosten horrek. /E.A.



OÑATI

## 13 milioi euro baino gehiagoko aurrekontua onartu du Udalak

Sekula baino goizago onartu ditu Oñatiko Udalak urteko aurrekontuak.

Datorren urterako 13.281.387 euroko aurrekontua onartu zuen udalbatzarrak, joan den astean egindako ezohiko osoko bilkuran. Horietatik, ia hiru milioi inbertsioetara bideratuko dituzte. Inbertsio nagusienen artean, honakoak ditugu: kiroldegia handitzeko lanak, Kalegoieneko lur azpiko aparkalekuak, saneamenduko lanak, eta Ibarra, Zubikoa eta San Lorentzoko kirol instalazioetan hainbat hobekuntza egitea. /A.I.

ANTZUOLA

## Musika Eskolakoen kontzertua eta Santo Tomas feria datorren astean

Abenduaren 17an, martitzena, Bergarako Musika Eskolan ikasten dihardutenantzuolar gaztetxoen kontzertua izango dugu. Udaletxeko osoko bilkuren aretoan izango da hori, 19:00etan. Hainbat musika tresnarekin egingo dute kontzertua: soinua, klarinetea, pianoa...

Eguenean, berriz, Santo Tomas feria egingo dute eskolako neska-mutikoek. Arratsaldean egingo dute azoka hori, eskolaren aurreko aldean, eta baserriko eta etxean egindako hainbat produktu jarriko dituzte ikusgai. /A.I.

ARAMAIO

## Aramaioren gaineko bideoa, udaberrirako kalean

Aramaioren gaineko bideoa egiten ari da B30 Producciones izeneko enpresa bizkaitarra. Gutxi gorabehera, 20 minutukoa izango da, eta bost ataletan banatuta, Aramaioko parajeen, eraikinen (elizak, ermitak, baserriak, Udala…), jaien, ohituren eta ostalaritzaren gaineko gaiak landuko dituzte bideoan.

Juan Carlos Revuelta B30 Producciones enpresako gerenteak esan digunez, bideoa udaberrirako izango da kalean. 500 kopia Aramaioko Udalarendako izango dira, bana ditzan. /U. M.




AITOR URIZAR

ARRASATE

## Egiten ari diren kultura etxe berriko hormen egoera uste baino kaskarragoa delaeta, eraikin horren lanak geldiarazi behar izan ditu Arrasateko Udalak

Arrasateko ospitale zaharreko hormak uste baino ahulagoak dira. Hala ikusi dute eraikin hura kultura etxe berria izateko egiten ari diren eraberritze lanetan. Esan dutenez, egoera kaskar horren arrazoietako bat dira urtetan kontrol barik eraikinean egin dituzten zenbait eraldaketa. Kontuak kontu, lanak geldi daude, eta dagoeneko Gipuzkoako Foru Aldundiak ere badu egoeraren berri. Orain, Udalaren eta Diputazioaren artean zer egin erabaki beharko dute. Edozelan ere, Diputazioak esan du hasiera baten, behintzat, ezin dela eraikina bota, monumentu historikoa da-eta. Kultura etxeko lanek ia lau milioi euroko aurrekontua dute, eta 2003. urte amaierarako edo 2004. urte hasierarako lanak amaitzea zehaztu zuten, baina, esan bezala, atzeratu egingo dira. /U.M.

BERGARA

# Komertzioetan euskara bultzatzeko 'Zabaldu atia euskeriari' kanpaina abian

Udaleko Euskara Zerbitzuak jarri du abian *Zabaldu atia euskeriari* kanpaina. Herriko merkatariei zuzenduta dago, eta helburua da komertzioetan euskararen erabilera bultzatzea. Bergaraz gain, kanpaina berean Antzuolako eta Oñatiko udaletako euskara zerbitzuek ere hartu dute parte, eta han ere abiarazi dute kanpaina.

**KANPAINAREN BEHARRA**

Bergarako Euskara Zerbitzuaren arabera, herriko bezero gehienak euskaldunak dira, eta etorkizunean ia guztiak izango dira euskaldunak. Hori argitzeko, honako datuak eman dituzte, besteak beste: bergararren %70ek ondo dakite euskaraz eta beste %10ek ulertu egiten dute. 25 urtetik beherakoen kasuan, %93k ondo dakite euskaraz eta beste %5ek, ulertu.

Hori dela eta, Euskara Zerbitzuak uste du dendariak errealitate horretara egokitu eta herriaren hizkuntza egoera kontuan izan behar dutela negozioan zein hizkuntza erabili erabakitzeko orduan.

Dendariei lana errazteko, hizkuntza aholkularitzarekin lotutako hainbat laguntza eskainiko dizkie Euskara Zerbitzuak kanpainaren barruan: batetik, behin eta berriro erabiltzen dituzten agirien –ordainagiriak, fakturak, aurrekontuak...– euskarazko ereduak eskainiko dizkie; eta, bestetik, euskaraz idazterakoan sortzen zaizkien zalantzak argitzen ere lagunduko diete, baita kartel komertzialak egiten lagundu ere. /M.B.

**Zertzelada**

**Udalaren ustez, herriko bezero gehienak euskaldunak dira. Hala, dendariek errealitate horretara egokitu eta kontuan hartu behar dutela dio.**

ELGETA

# Inbertsio ugari proposatzen dituen aurrekontua, eztabaidara

Datorren urteko udal aurrekontua abenduaren 26an izango den osoko bilkuran eztabaidatuko dute. Patxi Basauri alkateak dagoeneko banatu die zinegotzi guztiei udal aurrekontu proposamena. Eta zinegotziek abenduaren 16ra arte izango dute proposamenak egiteko.

**IAZ BAINO HIRU BIDER HANDIAGOA**

Alkateak proposatuko duen aurrekontua 3.559.640 eurokoa da. Hala, hiru aldiz biderkatzen du iaz EAJ-EAren eta Batasunaren aldeko botoekin onartu zen 1.132.593 euroko aurrekontua. Inbertsioek eragin dute igoera: iaz, 251.610 euro izan ziren inbertsioetarako, eta aurten, 2.415.747 euro izango dira.

**DIRU SARRERAK ESPERO DITUZTE**

Pagatzako industrialdeko eta Torrealdeko inbertsioei aurre egingo diete enpresek eta eraikitzaileek, horien plangintza eta urbanizazioa egitean ordaindu beharrekoarekin. Eta gainerako inbertsioei, Udalaren diru sarrerekin eta dirulaguntzekin. Inbertsio horiendako, 716.371 euroko aurrekontua zehaztu dute. /OXEL EROSTARBE

**Proposatutako inbertsio garrantzitsuenak**

| | |
|---|---|
| Pagatzako industrialdea handitzea | 1.639.275 € |
| Espaloia Kafe Antzokia | 265.659 € |
| Eguneko Zentroa | 133.153 € |
| Mendi nekazaritzako proiektuak | 78.131 € |
| Torrealdeko etxebizitzak | 60.101 € |
| Semaforoen proiektua | 31.336 € |
| Irisgarritasun plana | 13.655 € |
| **Inbertsioak, guztira** | **2.415.747 €** |

ARETXABALETA

## Galartzako elizaren gaineko datu historikoak batu ditu Aitor Antxiak

Zaharberritze lan guztiak amaitu eta gero, oraingo domekan, hilak 15, inauguratuko dute Galartzako Santa Luzia eliza. Ekitaldi hori dela eta, Aitor Antxia Leturia irakasleak Santa Luzia elizaren historia batzen duen orritxo bat gertatu du. Ikerlan horretan, besteak beste, Galartzako elizak XVI. mendetik XIX. mendera arte izan dituen aldaketak batu ditu Aitorrek. Informazio guztia gaztelaniaz eta euskaraz idatzi du, eta domekan elizara hurreratuko diren herritar guztiei banatuko diete. /AMAGOIA LASAGABASTER

ESKORIATZA

## Udal Kiroldegiko taberna kudeatzeko kontratazioa

Eskoriatzako Udalak kiroldegiko tabernaren kudeaketa kontratatu gura du, lehiaketa bidez. Taberna zerbitzuaren kudeaketa bere gain hartu gura duen edonor aurkez daiteke lehiaketara. Baldintzak eta informazioa jasotzeko, udaletxeko idazkaritzara joan beharko dute interesa dutenek. Iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zuten, abenduaren 4an. Hurrengo 15 egunetan, hau da, hilaren 19ra arte, dago izena emateko aukera. Epea amaitu eta astebetera jakingo da nork kudeatuko duen kiroldegiko taberna. /A.G.

LEINTZ GATZAGA

## Unaik eta Belokik irabazi dute aurtengo Pilota Txapelketa

Zortzi bikotek hartu dute parte aurtengo Pilota Txapelketan. Iaz ez bezala, aurten, egun bakarrean jokatu dute txapelketa. Bikoteen arteko kanporaketak egin zituzten lehenengo eta finalaurrekoak eta finala jokatu zituzten gero. Unai-Beloki eta Jon-Aritz bikoteak pasatu ziren finalera, eta 22-14 irabazi zuten lehenek. Herriko gaztetxoek ere jokatu zuten partidua: hain zuzen, Ibaik eta Aitorrek 16-11 irabazi zieten Lurri eta Igorri. Bestalde, gazta, intxaurrak eta urrak izan zituzten ikusleek. /A.G.



ARGAZKI PRESS

# Alberto Frías

EGUZKI INGURUMEN TALDEKO BOZERAMAILEA

## “Behin kaltea egitekotan, portu bat edo itsasadar bat sakrifikatzea zen egokiena”

ENERGIA EREDUA

**“Itsasoaren kutsaduraren %80 petroliontzien ohiko trafikoak eragindakoa da. Hori oso larria da, eta kolokan jartzen du energia eredu osoa”**

PARKE EOLIKOAK

**“Jar ditzagun haize-errota txikiagoak, edo gutxiago, kontsumo tokietatik gertu. Herrien edo udalen kontrolpeko haize-errota txikien aldekoak gara”**

Herrietan energia mota alternatiboak garatzeko dauden aukeren gainean berba egitera etorri da oraingo astean Elgetara. Horixe izan da Eguzki taldeko bozeramaile Alberto Frías abokatuari elkarrizketa egiteko arrazoia. Hori eta gaurkotasuneko beste gai bat ere bai: *Prestige* petroliontziaren hondoratzeak ekarri duen hondamena, hain zuzen.

ENEKO AZKARATE

***Prestige, Erika, Exxon Valdez, Urquiola*... Azken urteotan hondoa jo duten petroliontzien izenak dira. Ez dugu ikasiko?**

Bueno, horrek hausnarketa egitea eskatzen du, lehenbizi, aipatu dituzun izen horiek guztiak naturako hondamenekin lotzen dira-eta. Jakina, Etna sumendiaren erupzioak egindako kalteak naturako hondamenak direla esan genezake, baina petroliontzi batek sortutakoak ez dira naturako hondamenak. Ezin daiteke esan *Prestige* petroliontziak sortutako hondamena aurreikusteko modukoa ez zenik. Zergatik? Batetik, egunero sei mila petroliontzi dabilelako itsasoan, eta urtean Fisterratik 500 mila petroliontzi igarotzen direlako; bestetik, petroliontzi horietako herena komenigarritasun banderekin matrikulatuta daudelako; hau da, Liberia, Bahamak, Txipre, Panama, Malta, eta horrelako herrialdeetan matrikulatuta daudelako. Herrialde horiek gehienek ez dute nazioarteko hitzarmenik sinatuta, eta, horren ondorioz, ez daude gutxieneko segurtasun neurriak betetzera behartuta. Bestalde, herrialde horietan paradisu fiskalak daude... petroliontzi horietako tripulazioa lan-baldintza kaskarrean kontratatzen dute, esperientzia txikiko marinelak dira... Eta beste kontu bat: petroliontzi asko eta asko zaharregiak dira, kasko bakarrekoak dira... Horrekin guztiarekin zera esan nahi dut: natura hondamenaz berba egitea arduragabekeria eta adar-jotzea baino ez dela.

**Bretainiako kostaldean *Erika* petroliontziak orain dela hiru urte sortutako kalteak konpontzen dihardute oraindik...**

Bai, eta txarrena ez da hori: txarrena da orduz geroztik Europako herrialdeek ez dutela neurri berezirik hartu. Orduan kaleratu genuen prentsa-oharra eta orain *Prestige*-k sortu duen hondamena dela-eta kaleratutakoa berdina da.

**Istripu larrien ondorioz ez ezik, petroliontziek bestela ere isurtzen dute petrolioa itsasora, ezta?**

Ohiko trafikoak eraginda, urtean 10 milioi tona petrolio isurtzen dute petroliontziek itsasora. Hori gogoan izan beharko genuke, jabetzeko zenbaterainoko kaltea egiten dioten itsasontzi horiek itsasoari. Itsasoaren kutsaduraren %80 petroliontzien ohiko trafikoak eragindakoa da. Hori oso larria da, eta kolokan jartzen du energia eredu osoa.

**Horrelako hondamenik berriro gerta ez dadin zein neurri hartu beharko liratekeen esaten hasiak dira agintari batzuk. Zuk zer iritzi duzu horren gainean?**

Espainiako petrolio-konpainiek darabilten itsasontziek *Prestige* petroliontziaren ezaugarri berberak dituzte; hau da, 25 urte baino zaharragoak dira, kasko bakarrekoak dira... Agintariek, baina, orain esaten digute neurriak hartu behar direla eta hau eta bestea. Bestalde, Espainian ez dago itsasontzi bat bera ere *chapapote* delakoa itsasotik ateratzeko.

**Espainiako gobernuak orain arte erakutsitako jarrerari zer deritzozu?**

Lotsagarria. Hasieran esan zuten horrenbesterako ez zela eta lasai egoteko. Benetako datuak ezkutatu dituzte eta informazioa ematerakoan ez dira gardenak izan... Bestalde, erabaki okerra hartu zuten petroliontzia itsasertzera eroan beharrean barrualdera eroan eta hondoraratzita. Behin hondoa jota, petrolioa gogortu egingo zela esan zuten, zientifikoek kontrakoa esan arren... Laburbilduz, inprobisazioa nagusitu da.

**Egokiena petroliontzia itsasertzera eroatea zela esan duzu. Horrek ere izango zuen arriskurik, baina.**

Bueno, behin kaltea eragitekotan, portu bat edo itsasadar bat sakrifikatzea izango litzateke egokiena. Eta gero, toki hori berreskuratzeko beharrezko neurri guztiak ipini. Argi dago ingurumenari askoz ere kalte txikiagoa egingo litzaiokeela eta, zer esanik ez, baita arrantzaleei, turismotik bizi direnei, aisialdi guneei, hegaztiei, eta abarri ere. Ekonomikoki eta sozialki askoz ere kostu txikiagoa izango luke. Modu horretan, behintzat, hondamena toki konkretu baten gertatuko litzateke.

**Beste kontu bat da petrolio isurketa horrek egingo dituen kalteen erantzule zein den zehaztea. Agintariek hartu zuten lehen erabakia izan zen itsasontziko kapitaina atxilotzea. Zer deritzozu horri?**

Lotsagarria da kapitainari egoztea errua. Erantzukizun zibila norena den zehaztu behar da. Semaforo bat gorri dagoela pasatu eta norbait harrapatzen badut, neu naiz erantzule zibila, ezta? *Prestige*-ren kasuan, ostera, aseguru-etxeak esan du ez dela horren erantzule. Orduan, nor da erantzule? Nork ordainduko ditu kalteok? Nire iritziz, garbi dago zein den errudun: petrolio-konpainiak. Haiek dira onuradun nagusiak, hortaz, haiek ordaindu behar dute. Erantzule nagusia petrolioaren jabea da, hura delako eredu horren bultzatzaile nagusia.

**Hondamenaren ondorioz sortutako kalteak guretako zenbaterainokoak izango diren jakiterik badago?**

Ekosistemen berreskuratze ahalmena zein izango den? Bueno, Euskal Herrian 225 kilometroko kostaldea eta 114 hondartza dauzkagu. Hondartzetara iritsitako fuelolioa jaso ahal izango dugu eta hondartzak garbituko ditugu, baina hori itsasertz osoaren %10 baino ez da. Zelan garbitu beste guztia, Gaztelugatxeko itsaslabarrak, esaterako? Itsasoa, itsasertzak, padurak..., guztiz berreskuratzea urte askoko lana izango da. Gainera, hilabetetan jasan beharko dugu isuri beltza, eta orbanak luzaroan agertuko zaizkigu, tarteka, han eta hemen. Hori guztia, oro har, baxurako arrantzarendako oso kaltegarria izango da.

**Euskadin gauzak ondo egiten ari da Jaurlaritza?**

Informazioa ematerako orduan gardena izan da euskal gobernua, baina horrelako hondamen bati erantzuteko ez gaude behar den moduan prestatuta. Bermeoko arrantzaleen itsasontziekin orban bila joatea ez dut uste oso eraginkorra denik, borondate onenarekin egiten bada ere. Bestalde, Plentziako itsasertza eta Urdaibai babesteko jarri dituzten hesiak ez dut uste askotarako balioko dutenik.

**Gaia aldatuz, herri mailan gara daitezkeen energia mota alternatiboen gainean jardun duzu oraingo astean Elgetan. Zer egin dezakegu?**

Energia alternatiborik onena kontsumitzen ez dena da. Esan beharra dago, era berean, garrantzitsua dela energia sortzen den tokia eta kontsumitzen den tokia ahalik eta gertuen egotea. Bestalde, etorkizuneko energia mota garbi eta onena hidrogenoa da. Hortaz, jar ditzagun indarrak energia mota hori erabilgarri bihurtzeko.

**Eta parke eolikoak?**

Gu ez gaude haize-erroten aurka. Baina garbi esan behar da energia eolikoa ez dela, inondik inora, alternatiba. Bestalde, haize-erroten alde bai, baina parke eoliko erraldoien aurka gaude. Elgeakoa Autonomia Erkidegoko babestutako eremu berezi bakarra baldin bada, zelan bururatu han 140 haize-errota jartzea? Bai, jakina, energia iturri berriztagarriak dira horiek, baina inondik inora alternatiboak. Parke eolikoak bai, baina non? Horixe da kontua. Jar ditzagun haize-errota txikiagoak, edo gutxiago, kontsumo tokietatik gertu. Herrien edo udalen kontrolpeko haize-errota txikien aldekoak gara.

# Zabalik



DIEGO MARTIARTU

## Mando-bidean

**Gero eta gehiago dira euren seme-alaba puberak Estatu Batuetara, Kanadara edo Australiara bidaltzen dituzten gurasoak. Londongo ingelesa Milwakee-koa baino exkaxtxoagoa omen, eta 14-15 urteko gazteak hegazkinean sartu eta putzuaz bestaldera nahiz antipodetara igortzen dituzte, ingelesa ooondo ikasi eta "esperientzia aberasgarriak" (?) bizitzera. Laburtzeko: "Asto fan eta mando etorri".**

**Ni neu ere Colónen mando-bideari lotu nintzaion aspaldi, Dorre Bikien Eraso aurreko 12. urtean. 3 hilean txikano batekin partitu nuen etxea, Martines abizenekoa bera (bai, hola, bukaerako –s horrekin). Martinesekin hasieratik egin nuen ingelesez, esan zidalako espainolez apenas zekiela dozena bat hitz esaten.**

**Europar, zuri eta ikasketadun: halaxe ikusten ninduen Martinesek. Bere ustean, dena neukan nik, zerutik etorria gainera, eta uste dut horregatik gorroto ninduela. Kontua da txikanoari hasi nintzaiola behin, herriminezko arrebaturen baten peanedo, Euskal Herriko historia pixka bat –zabarki– azaltzen: Orreaga, Karlistadak, ETA... Hasieran interesa jarri zuen, baina bukaerarako begietan irakurri nion berari bost (edo inkluso sei) axola zitzaizkiola larru zuri burgeskume baten kalentura nazio-askatzaileak.**

**Martines *US Army*-n egona zen urteetan, eta sasoi hartan Guardia Nazionaleko kide zen. Egun batean bere amari deitu zion telefonoz Texas-era, esanez Panamako gerrara zihoala boluntario. Kabroiak nik baino hobeto egiten zuen erdaraz. Ondoren, sukaldera etorri zen, eta, betiko moduan, barre egin zidan esne-zopak jaten nenbilela ikustean: *"Jo-jo-jo, cat-food!"*; eta, jarraian, betiko moduan, *Korn Flakes*-ak hartu, katilura bota eta Coca-cola bat hustu zuen katiluan, eta dena batera irentsi.**

# Gutunak

Ahalik eta iritzi gehienek izan dezaten tokia, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Izena, telefonoa eta helbidea agertu beharko dira. Laburtu behar izanez gero, GOIENKARIAK bere esku du horretarako eskubidea.

Zure iritzia helarazteko:
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Telefonoa: 943 76 92 72
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: goienkaria@goiena.com

## Zarugaldeko espaloi madarikatua

Behin batian baeuen Arrasaten Zarugalde izeneko kale estu eta zahar bat. Kale horretan autua aparketako lekua faltan euenez bertako bizilagunek autua ezpaloi gaiñien uzten hasi ziren.

Halako egun baltz baten, Gambrinus izeneko taberna parera morroi txapel gorridun batzuk azaldu ziren grua izeneko animalixa metaliko bateaz eta bertan aparkatute euzen kotxe danak eroaten hasi ziren bizilagunen harridurarako.

Zein zan ba bertaraketako arrazoia? Bateronbatek salaketie jarri euela, Bizkaia etorbidekuek Udalaz akordiue eukiela eta hareik eroateko aginddurik etzeukiela, Berdintasun printzipixua etzala beteten baiña aginddutakue egin bihar zala… Porru-salda edarra!

Hala eta be, bazan porru egindde egotetik libretan zana: arrain-kamioi zaharra. Nahiz eta sarrittan be gorputz erdi espaloi gaiñien eduki, harek kamioiarek sekula etzauen multarik jasoten. Harek euken suertia harek!

Zarugaldeko auzokuek Udalari erreklamaziñuak egin arren etzauenez iñungo erantzunik jasoten, grua illuna auto bat eroaten euen bakotxien kalera urteten hasi ziren datorren abestixa kantetako:

"Altzaik Porru tru la lai, tru la lai, tru la lai, altzaik kotxie tru la lai, tru la tru la lai."

Sasoi illun justiziabako hareittatik gelditu jakun abesti hau, oraindio be asteko edozein egunetan entzun leike Ganbrinus taberna ondoko espaloi madarikatuan.

GAIZKA ERAÑA
*Arrasate*

## Erasoei modu baketsuan aurre egin

Independentziaren alde eta sasi-Bush guztien gainetik, autodeterminazioa: guk geuk daukagu erabakitzeko ahalmena.

Mundu osoan beste herri zapalduekin gertatzen den legez, hemen ere Bush enperadorearen akolitoak jo eta egur dabiltza gu mapatik ezabatu guran. Ez daukate inongo lotsarik oinarri-oinarrizko eskubideak urratu, ipurdia garbitu eta zakarrontzira botatzeko. Horren erakusgarri garbiena Batasuna eta ezker abertzaleko erakundeen legez kanporatzea dugu. Gaur egun ez daukagu biltzeko eskubiderik, ez manifestatzeko eskubiderik, "kalitate" legea eta Erdi Arokoak diruditen lan dekretuak inposatu gura dizkigute, gure hizkuntza desagertu eragin... Bestela esanda, independentzia gura dugunok kartzelara sartu gura gaituzte. Gure ideiengatik kartzelaratu gura gaituzte.

Honen guztiaren aurrean derrigorrezkoa irizten diogu gure arteko antolakuntzari. Hola ba, Aretxabaletan herritar talde bat eratu berri dugu, "Atxabaltarrok" izenekoa, eraso hauei modu baketsuan aurre egin eta azpimarratzeko libre izateko autodeterminazioa behar dugula.

Honen guztiaren aurrean "Atxabaltarrok" beharrezkoa ikusi dugu, egoera faxista horri aurre egiteko herritar guztiok bateratzea, egoera horri buelta emateko, erantzun tinkoak planteatuz; euskararen ofizialtasuna, euskal irakaskuntza, langileen eskubideak defendatuz eta autodeterminazio eskubidea aldarrikatuz.

Guztion artean Euskal Herria bizirik dagoela azalduz; era guztietako mobilizazioen, manifestazio nazionalen eta greba orokorren bitartez, Euskal Herriaren hitza aldarrikatuz. Abenduaren 13 eta 14an Aretxabaletako udaletxean itxialdia egingo dugu, eta ezinbestekoa jotzen dugu atxabaltarron presentzia eta mobilizazioa bertan, eta aurrerantzean aurrera eramango diren ekintzetan. Euskaldunak garelako, independentistak garelako, Euskal Herrian sinisten dugulako, ez gaituzte isilaraziko; Aurrera Euskal Herria!

ATXABALTARROK
*Aretxabaleta*

## AHTri IU-EBk aurkeztutako 'U alternatibaren' inguruan

Orain dela aste batzuk, IUk euskal "Y" delakoari proposamen alternatiboa aurkeztu zion komunikabideen bitartez. Bazterrak harrotu ditu proposamen berri honek. Baina azter dezagun gai honen inguruko zenbait kezka eta zalantza:

1. Eusko Jaurlaritzan hirukotea osatzeko, AHTren inguruko afera negoziatu zuten. Hasieran, eta publikoki aitortua, IUk aurkako jarrera zuen, beraz, gobernu akordioa sinatzeko oztopo handia zen. Nire iritzíz, IUk beste bi alderdiekin, PNV-EA, orduan hitzartu zuen egun egin duen proposamena aurkezteko diseinua. Zertarako:

- Beraien irudia garbitzeko estrategia hitzartu zuten.
- AHTren aurkako mugimenduan kontraesanak eta nora eza sortzeko helburuarekin. Borroka hau neutralizatzeko, beraz.

2. Hedabideen laguntza handia izan du. Zuen hedabideetan ere aipamen ugari egin dituzue. Baina nor gogoratu da 1997an Herri Batasunak proposamen antzerakoa aurkeztu zuela?

- 1995. urtean hasitako barne eztabaida sakonaren emaitza izan zen aurkeztu genuen txostena.
- Proposamenaren oinarria, egungo tren sarea erabiliz eta hobetuz Euskal Herriaren bertebrazioa bilatzen zuen.

3. Inork ez du azpimarratu egun AHT eta trenbidearen lurralde plana ez dagoela alegazioak edo proposamenak aurkezteko epean. Hori aspalditxo pasatu zen. Bitartean, Eusko Jaurlaritzak behin eta berriro AHTren aldeko apustua egi-

# Olatz eta Patxi

MIKEL ARROIABE



ten du. Azkenean Ibarretxe bera izan zen lehenbailehen egin dezatela eskatu zuena. Bestalde, IUk eta, bereziki, Javier Madrazok egiten duen bakarra bere burua eta alderdiarena zuritzea da. Ondo baino hobeto daki egun ez dela alternatiba desberdinak aztertzeko momentua.

4. Momentu honetan, ezkertiar eta aurrerakoien lana indarrak metatu, batu eta zintzotasunez AHT gelditzea da. Hau da benetako alternatiba eraginkorrena. AHT gelditu, moratoria bat lortu eta eztabaida sozial sakon bat burutu, Euskal Herriari eta herritarrei beharrezkoa den garraio plangintza lortu ahal izateko.

5. Gure herriaren garraioa intermodalitatea izan behar du ardatz bezala, garraio desberdinak konbinatuz, garraio publikoaren aldeko defentsa bultzatuz eta merkantziei irtenbide egoki bat emanaz.

6. Gure lurraldeak antolamendu egoki bat behar du, eta ez egungo garapen ereduak agintzen duena, hau inondik inora ez delako jasangarria ez eta logikoa.

JESUS MARI GARITANO
(BERGARAKO ABERTZALE SOZIALISTEN UDAL TALDEAREN IZENEAN)
Bergara

## Gurasoena da erru guztia

Kirola gure seme alaben hezkuntzaren osagarria dela sinesten dugun guraso talde bat gara. Izan ere, kirolak elkartasuna, lagunartekotasuna, adiskidetasuna, sakrifikatzeko gaitasuna, diziplina eta bestelako balore garrantzitsuak indartzen ditu, beraien izaera hobetzen lagunduaz.

Kasu askotan, kirol jarduera hauek gurasoengandik dedikazioa eta diru xahuketa eskatzen dute.

Ohikoa da entrenatzailea edo delegatua kirolariaren gurasoa izatea, eta funtzio hauek diruz ordainduak ez direnez, profesionala den monitorerik ez izatea. Erratzeko beldurrik gabe esan dezakegu, gaur egun Gipuzkoako Futbol Elkarte gehienak, beraien gazte kategorietan, kirolarien gurasoez osatuak daudela eta beraien lan eskuzabalari esker mantendu daitekeela egitura hau.

Guraso guztioi gehien arduratzen gaituen kontuetako bat gure seme-alabekin izan beharreko eguneroko harremana da, eta horregatik, ahalik eta modu objektiboenean beraien jarrerak baloratzen saiatzen gara, modu honetan egokiena iruditzen zaigun norabidean bideratzeko. Jakin badakigu beraien hezkuntza integrala, izan jokalari, ikusle edo arbitro, gure eskuetan dagoela hein handi batean.

Hori dela eta, noizbehinka, guztiz nahastuak sentitzen gara argitaratzen diren albiste batzuen aurrean; kasu hauetako bat joan zen abenduaren 1ean Debako Errotazar futbol zelaian Hamaika Bat eta UDAko ekipo infantilen arteko partiduan jazotako gertaerak dira, argitaratutakoa ez delako errealitatera egokitzen.

Iragan abenduaren 3an *El Diario Vasco*-ko kirol orrialdeetan argitaratutako berriak edozein informazioren oinarrizko bi printzipioren aurka doa: objektibotasuna eta egiatasuna.

Idatzi hau sinatzen dugunok norgehiagoka ikusten egon ginen, eta honakoa esan behar dugu:

1. Norgehiagoka guztian zehar ikusleen jarrera behar bezalakoa izan zela.

2. Atsedenaldian partiduko arbitroaren eta UDAko delegatuaren artean tirabira bat egon zela egia izanda ere, modu berean, egia da, aldagela barruetan arbitroak izandako jokaera, seguruen gaizki ulertu batek eragínda, ondoren gertatutako liskarraren eragilea izan zela.

3. UDAko delegatuak ez zuela arbitroa inola ere “bortizki erasotu”, hainbat hedabidetan esan den bezala, eta gertaerak ez zirela elkarri eginiko bultzakadez haratago joan. Izan ere, partiduak inolako istilurik gabe jarraitu zuen atsedenaldiaren ondoren.

4. Gertaeren ondoren eta partidua amaitzerakoan UDAko delegatuak behin baino gehiagotan eskatu zizkiola barkamenak arbitroari, honek ez zituelarik onartu nahi izan.

Penagarria iruditzen zaigu, egunkari baten laguntzaz baliatuz (honek albistea modu sentsazionalista batez eman baitu, kontrastatu ere egin gabe), pertsona baten protagonismo nahiengatik, UDAko delegatua publikoki epaitua izatea, egunkarian bertan izen eta abizenez aipatua izanaz, eta paperak guztia jasan dezakeenez, bide batez jokalarien gurasoei ere errua leporatzea.

FRANCISCO ANDRÉS
(PARTIDUAN EGON ZIREN UDAKO INFANTILETAKO JOKALARIEN GURASOEN IZENEAN)
Aretxabaleta

## Herri Eskolak, zentsuratuak

Pasatu berria daukagu abenduak 6, espainiar konstituzioaren eguna. Egutegian begiratuz gero, gorriz ageri zaigu egun hau, hau da, jai egun bezala. Arrasateko Goi Eskola Politeknikoko zenbait ikasle eta irakasle euskaldun, inposaturiko jai egunen aurkakoak izanik eta konstituzio honek euskal herritarron eskubideak ukatzen zituela ikusirik, ikasturte honetarako herri eskolak antolatu zituzten, aurreko ikasturtean bezalaxe.

Ikasturte honetarako hiru hizlari lotu ziren: alde batetik, Alfontso Martinez Lizarduikoa EHU-ko irakaslea, euskal zibilizazioaren inguruan hitz egiteko; bestetik, Igor Arroyo Nafarroako Legebiltzarkidea, “Euskal Herriak Euskal Unibertsitatea” gaiaren inguruan hitz egiteko; azkenik, Arnaldo Otegi Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Legebiltzarkidea Euskal Herriaren gaur egungo egoeraren inguruan hitz egiteko.

Abenduaren 6a baino aste batzuk lehenago, herri eskolen antolatzaileek hitzaldiak egiteko gelak eskatu zituzten. Hizlariak konfirmatu gabe zeudenez, ez zituzten aipatu eskaria egitean. Normaltasun osoz jaso zituzten 5001. gela erabiltzeko beharrezkoak ziren baimenak.

Baina, azaroaren 27an, e-mail bat bidaltzerakoan Goi Eskola Politeknikoko ikasle eta irakasle guztiei hizlariak nortzuk ziren komunikatzeko, Retegi Eskola Politeknikoko zuzendariak antolatzaileetako bati deitu zion horrelako “ekitaldi politikoak” eskolan ez zirela “onargarriak” esateko eta 5001. gela erabiltzeko debekua komunikatzeko.

Horren aurrean, MUko Eskoriatzako Irakasle Eskolara abiatu ziren antolatzaileak baina erantzuna berdina izan zen. Ondorioz, herri eskolak Monterron jauregian burutu behar izan ziren.

Honen aurrean Eskolako Ikasle Abertzaleak taldeak ondorengo irakurketa egiten du. Berriz ere Eskolako agintariek beraien benetako aurpegi espainola erakutsi dute ikasleon eskubideak zapalduz. Gogoratu besterik ez dago, aurreko ikasturtean ikasleen erdiak eta irakasleen herenak euskal egutegi bat martxan jartzeko eskatu zutela, baina MUk ukatu egin zuela eta berretsi egin zuela jaia maiatzaren 29an. Hala ere, bere jarrera abertzalea adierazi nahi zuten ikasle eta langileendako eskola gune batzuk irekita uztea erabaki zuten.

Beraz, garbi ikusten da Eskolak ez duela bere hitza bete, abertzale sentitzen garen ikasleoi herri eskolak burutzeko eskubidea ukatuz eta gureak ez diren jaiak inposatuz.

Ondorioz, abenduaren 6an bi aurpegi ikusi genituen: Espainiaren zapalkuntza, Eskolaren laguntzaz eta Euskal Herriaren askatasun gogoa, Monterronen herri eskoletan bildu ginen ikasleok erakutsi genuena. Eskerrak bertan parte hartu zenuten ikasle guztiei.

Bukatzeko zera esan behar dugu, argi izan dezatela ez garela geldituko, borrokan jarraituko dugula eta entzungo gaituztela ikasleoi gurea dena lortu arte: Euskal unibertsitatea. Euskal egutegia orain eta jai egun arrotzei intsumisioa!

ESKOLAKO IKASLE ABERTZALEAK
Debagoiena

## Abenduaren 14an, zapatuan, euskaldun denok Iruñera!

Euskarak jasaten dituen erasoen aurrean, Oinarriak taldeak manifestazioa antolatu du abenduaren 14an, 17:30ean Iruñean.

Denok dakigu Nafarroa jasaten ari den erasoaldia latza dela, baina ez da bakarra, euskaldun guztiok garelako kaltetuak.

Egoera hau ikusita, euskaldun guztiok Iruñean egon behar dugu eta denon artean egoera honi aurrea erakutsi. Bada garaia euskaltzaleok kalera atera eta dagozkigun eskubideen alde ohi egiteko.

Agerraldi honen ondoren ere, badaukagu non lan egin eta zeri jarraitu. Beraz, Iruñean ez da amaitzen euskararen aldeko borroka, euskarak iraungo badu egunez egun lan egin beharra dago, erasoak etengabekoak direlako.

Euskararen aurkako erasoen aurrean, zera esan behar dugu: aski da!, euskara ofiziala Euskal Herrian!, denok Iruñera.

ARETXABALETAKO EHE
Aretxabaleta

**DATORREN ASTEKO EZTABAIDAGAIA** Iritzia emateko: goienkaria@goiena.com

*Porrot egin dute EAJ eta EAren arteko koaliziorako negoziazioek. Zergatik?*

Goienkaria
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

ZUZENDARIA
Eneko Azkarate
ERREDAKZIO KONTSEILUA
Edorta Mendieta, Miguel Angel Elkoroberezibar, Josemari Velez de Mendizabal

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa
SAILETAKO ARDURADUNAK
Goio Arana (Diseinua)
Gotzon Arzelus (Publizitatea)

PUBLIZITATEA
Arantzazu Lagunilla, Mireia Larrañaga, Natali Martinez, Izaskun Bolinaga, Ziortza Martin, Imanol Elortza
PRODUKZIOA
Iban Arantzabal

TESTUEN ZUZENKETA
Sergio Azkarate
HARPIDETZA ETA BANAKETA
Julen Aranguren

Goiena Komunikazio Zerbitzuak
LEHENDAKARIA
Estepan Plazaola
ZUZENDARI NAGUSIA
Iñazio Arregi

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen orri hauetan adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

## Podiuma

# Leire Lasa |GIMNASTA|

**Bergarako Ariznoa taldean ekin zion Leire Lasak gimnasia egiteari. Azken lau urteak Eibarko Ipurua taldean eman ditu. Aurreko aste bukaeran, Murtzian izan zen, Espainiako Txapelketan. Bigarren izan zen, taldeka, eta pozik dago.**



O.E.

Leire Lasa, Murtzian jokatutako Espainiako Txapelketatik bueltan.

**Umetatik diharduzu gimnasian. Espainiako Txapelketan parte hartzera iritsiko zinela uste zenuen?**

Bergarako Ariznoa taldean hasi nintzen gimnasia egiten, 8 urterekin. Gero, 12 urterekin, Bergaran talde federaturik ez zegoela-eta, Eibarrera joan ginen entrenatzera. Adinean aurrera egin ahala entrenamendu gehiago egin behar dira; ordu gehiago eskaini behar zaizkio gimnasiari, eta gauzak zailduz joaten dira. Helburua ere zailago izaten da. Umetan ez, baina aurten, Espainiako Txapelketan parte hartzea zen helburua, eta lortu dugu.

**Taldeka Gipuzkoako eta Euskadiko txapeldun eta Espainiako txapeldunorde. Pozik egoteko moduko emaitzak lortu dituzue.**

Gustura gaude egin dugun denboraldiarekin. Gipuzkoako Txapelketa Bergaran jokatu zen, eta Donostiako taldearen aurka irabazi genuen. Euskadiko Txapelketan ere aurrenak geratu ginen. Garaipen harekin, gainera, Espainiako Txapelketarako sailkatu ginen: Murtzian jokatu zen, aurreko astean, eta bigarren izan ginen. Hortaz, esan bezala, gustura gaude. Bestalde, Espainiako Txapelketan azpijokoa izan zela komentatu da; izan ere, lau epaile Aragoikoak ziren, eta Zaragozano taldekoek maila gehienetan irabazi zuten. Batek daki...

**"Adinean aurrera egin ahala entrenamenduak gogortu egiten dira. Gimnasiari ordu gehiago eskaini behar zaizkio; helburua zailagoa da"**

**"Espainiako Txapelketan parte hartuta, gimnasian nituen helburuak bete dira. Orain, ikasketei heldu behar diet"**

**Espainiako Txapelketan parte hartu duzun lehenengo aldia izan da. Zer moduz?**

Oso esperientzia ona bizi izan dugu. Era berean, gogorra izan da, maila horretako txapelketa baten guztiz kontzentratuta egon behar duzu-eta. Lehenengo egunean, batez ere, oso urduri ibili nintzen.

**Denboraldi bikaina egin ostean, zelan ikusten duzu etorkizuna?**

Espainiako Txapelketan parte hartuta, gimnasian nituen helburuak bete ditudala uste dut. Hala ere, behin onenen artean egonda, pena eman dit urrezko dominarik ez irabaztea. Helburuak beteta, etorkizunean denbora gutxiago eskainiko diot gimnasiari. Ez dut erabaki guztiz utziko dudan edo ez, baina eguneroko entrenamenduekin, behintzat, ez dut jarraituko. Orain, ikasketei heldu behar diet.

**Beti esan izan da gimnasia kirol gogorra dela. Egia da?**

Ondo egoteko asko entrenatu behar da. Entrenamenduak ere zailak eta gogorrak izaten dira. Gogoz hartu behar da, bestela, lortzen den bakarra da nor bere buruarekin eta ingurukoekin haserretzea. Ikasketendako eta lagunekin egoteko denbora ere kentzen du. Orain izango dut denbora horretarako.

OXEL EROSTARBE

## VENTANAS SAN MIGUEL SARIA

**Asteburuko emaitzak:** Aretxabaleta-Touring: 3-3 / Bergara-Mundarro: 1-1 / Aloña Mendi-Oiartzun: 1-0 / Mondra-Elgoibar: 7-1

ASTEKO JOKALARIRIK ONENAK

| | | | |
|---|---|---|---|
| **1.** | Xabi Camino | (Aloña) | 3 puntu |
| **2.** | Iban Garai | (Mondra) | 2 puntu |
| **3.** | Jon Altzola | (Bergara) | 1 puntu |

1 
**Xabi Camino**
Aloña

2 
**Iban Garai**
Mondra

3 
**Jon Altzola**
Bergara

**Xabi Camino**
Gola azken txanpan, eta garaipena Aloñak.

**Iban Garai**
Indarra eta gogoa soberan ditu Mondrako *Hurakana*-k.

**Jon Altzola**
Partidu biribila Jonena. Lastima ezin irabazi izana.

SAILKAPEN OROKORRA

| | | | |
|---|---|---|---|
| **1.** | Gorka San Vicente | (Bergara) | 7 puntu |
| **2.** | Jon Muruamendiaraz | (Mondra) | 6 puntu |
| **3.** | Xabi Camino | (Aloña) | 5 puntu |
| **4.** | Jon Altzola | (Bergara) | 3 puntu |
| **5.** | Ekain Garin | (Mondra) | 3 puntu |

1 
**Gorka San Vicente**
Bergara

2 
**Jon Muruamendiaraz**
Mondra

3 
**Xabi Camino**
Aloña

**PORRAREN IRABAZLEA**

**BASTER-ALDE jatetxean bi lagunendako afaria MERTXE BASAURIk irabazi du.**

VENTANAS SAN MIGUEL
Iturriotz 24 • 20500 ARRASATE
Tel.: 943 79 78 10
Ibargarai 4 • 20570 BERGARA
Tel.: 943 76 12 21

## Kirolabur

### PILOTA/BERGARA

Asegarceko pilotariek jokatzen dihardduten bigarren mailako Lau t'erdiko finala izango da bihar, zapatua, Bergarako Udal Pilotalekuan. Hain zuzen, Arbizu eta Leiza izango dira aurrez aurre finalean. Pilota jaialdia 16:15ean izango da, eta finalaren ostean beste bi partidu jokatuko dira: lehenengoan Berasaluze VIII.ak eta Errastik Bengoetxea VI.aren eta Pascualen aurka jokatuko dute; bigarrenean, Nagorek eta Armendarizek Tirapu eta Otxandorena izango dituzte aurkari.

Debagoieneko pilotariei dagokienez, aurreko zapatuan Aizarnazabalen jokatu zen DV Txapelketako finalaurrekoan Xabier Uberak eta Jon Bengoetxeak 22-14 galdu zuten Martínez de Irujoren eta Zabalaren aurka.

### ESKALADA MATERIALA/BERGARA

Felix Iñurrategi-Baltistan Fundazioak eta Pol-Pol Mendizale Taldeak eskaladako material bilketa egiten dihardute. Abenduaren 19a bitartean jardungo dute Pakistango Machulu herrian dagoen Felix Iñurrategi mendi Eskolarako materiala batzen.

Helburua da ondo dagoen mendiko materiala batzea: botak, galtzerdiak, prakak, jantzi termikoak, jantzi polarrak, haizearen edo euriaren kontrako txamarrak, eskularruak, zakuak eta beste hainbat gauza jasotzen dihardute. Interesatuek Pol-Poleko egoitzara jo dezakete, hilaren 19ra arte, 19:00etatik 20:30era.

### ATLETISMOA/ARRASATE

Koadrilen arteko 25. Herri Lasterketa jokatuko da domekan Arrasaten. Portaloian hasiko da lasterketa. Herriko kaleetan barrena sei kilometroko ibilbidea egin ostean, plazan amaituko da. Urtero moduan, koadrila bakoitzeko lehenengo bosten denborak hartuko dituzte kontuan. Umeen proba goizeko hamaiketan izango da, eta nagusiena, eguerdiko hamabietan.

Iaz, Zuhaitz Gurrutxaga arrasatearra (beheko argazkian) izan zen bizkorrena helmugan. Aurten, berezia izango da lasterketa; izan ere, orain dela 25 urte ekin zioten proba antolatzeari. Debagoieneko korrikalari onenek hartuko dute parte proban.



### SASKIBALOIA/ARRASATE

Bihar, zapatua, Calasancio taldearen aurka jokatuko du Kenci Arrasatek. Nafarren aurkako partidu horrekin lehen itzulia amaituko du Iker Zubiriak zuzendutako taldeak. Partidua arratsaldeko seietan jokatuko da, Iturripen. Azken bost partiduetatik lau irabazi ditu Kenci Arrasatek; izan ere, taldearen jokoa nabarmen hobetu da, eta Calasancio taldea ere mendean hartu gura dute arrasatearrek. Kenci Arrasate seigarren da sailkapenean. Hala, Liga lehenengo seien artean amaitzea da taldearen helburua, horrek EBA mailara igotzeko ligaxka jokatzeko aukera emango dio-eta.

www.todo-deporte.com
Kirolerako behar duzun material guztia hemen daukazu


OPARIAK
2002ko GABON
EROSKi


grupo
amuebladora
mondragonesa
aeme interiores
Centro hogar muebles
sofa-leku
koltxoi-leku
sukal-leku
Garibai kalea 9
Zigarrola kalea 1
Tel./Faxa: 943 77 14 92
Tel./Faxa: 943 77 10 12
Tel.: 943 79 15 03
www.grupo-aeme.com
grupoam@grupo-aeme.com

# Goienka2a

Egubakoitza / 2002ko abenduaren 13a

Kultura eta aisialdia

Abenduaren 13tik 20ra


ARRASATEN ESKAINIKO DUTE ZARZUELA, ABENDUAREN 13AN, 14AN ETA 15EAN

# 'Los Gavilanes' zarzuela, 45 urte geroago

**Aldez aurreko salmentan jarritako sarrera-txartel guztiak saldu dira oraingo asteburuan *Los Gavilanes* zarzuela ikusteko. Gaur, bihar eta etzi emanaldi bana izango da, Amaia Udal Antzokian, 19:30ean. Izaskun Murgia Elkarte Lirikoak ohitura bilakatu du abenduro zarzuela bat eskaintzea, eta argi geratu da, hiru zarzuelek izan duten harrera ikusita, Mondragoek ondo irabazita duela herri zarzuelazale ospea. Ibarreko guztiok ere aukera bikaina dugu hau musika eta antzerkia uztartzen dituen genero horretaz eta Izaskun Murgia Elkarte Lirikoko abeslari eta aktoreen lanaz gozatzeko. Euren lana babesten Bergarako Orkestra Sinfonikoa izango dute.**

**Mondragoeri 1950a ezkero datorkio zarzuelarekiko zaletasuna; urte hartan jokatu zen lehenengo aldiz zarzuela bat Arrasaten. Ordutik 1960ra, hamar zarzuela antzeztu zituzten herrian; tartean, asteburu honetan eskainiko dutena: *Los Gavilanes*. Hain zuzen ere, abenduaren 16an beteko dira 45 urte *Los Gavilanes* Arrasaten eskaini zutela. Eta urtemuga ospatzeko modu ezin hobea antolatu du Izaskun Murgia Elkarte Lirikoak. Sasoi hartan, Gurea zineman izan zen emanaldia, eta orain baino baliabide gutxiagorekin moldatu behar izan zuten arrasatearrek. Ez dago zalantzarik, ordea, ilusioari eta gogoari dagokionez, oraingo asteburukoarekin parekatuta izango zirela.** /LEIRE KORTABARRIA



AZALA: GOIO ARANA / ARGAZKIA: IZASKUN MURGIA ELKARTE LIRIKOA


OMU
ZERAMIKAK
DEBAGOIENA
BILTEGIA ETA BULEGOAK
Meatzerreka 6 • ARRASATE
Tel : 943 79 14 28 / Fax : 943 79 40 43
ERAKUSKETA
Ignacio Zuloaga 4 • ARRASATE
Tel : 943 79 07 20
Zeramikaren mundua zure eskura, Debagoienean!


Zestak Sernoel, Loteak eta Gabonetako Opariak
Deskontu bereziak
Debagoienerako!
GASTEIZ ETA ARABAKO LANTEGI BAKARRA.
ETOR ZAITEZ GURE ERAKUSKETA ARETOA IKUSTERA.
Kalitatea Opari Ezazu.
ESKATU KATALOGOA
SERNOEL, S.C.
Biltegia eta Erakusketa
Vitorialanda, 8 • 10. Pabilioia
(Ali-Gobeo industrialdea) 01010 GASTEIZ
945 24 70 50 Fax: 945 24 79 61 / 945 20 05 78
SerNoel
SerNoel

ZARZUELA/ **'LOS GAVILANES' LANA JOKATUKO DU IZASKUN MURGIA ELKARTEAK**

# Zarzuelaren asteburua Arrasaten

ABENDUAREN 13AN, 14AN ETA 15EAN IZANGO DIRA EMANALDIAK, MONDRAGOEKO AMAIA UDAL ANTZOKIAN, 19:30EAN

LEIRE KORTABARRIA

**Hirugarrenean bai. Hirugarren aldian zarzuelarik konplikatuenetariko batekin ausartu dira Izaskun Murgia Elkarte Lirikokoak. Aurreko urteetako eskarmentua ondo erabili du Arrasateko elkarteak, eta asteburuan, *Los Gavilanes* zarzuela jokatuko du, Mondragoeko Amaia antzokian, gaur, bihar eta etzi, 19:30ean.**

*Los Gavilanes* Jacinto Guerreroren zarzuela ez da errazenetarikoa, edozein alderditik begiratuta ere. Hala esan digu Izaskun Murgia Elkarte Lirikoko zuzendari Tere González kantu irakasleak: "Aurretik egin ditugunak baino askoz korapilotsuagoa da *Los Gavilanes*, abesbatzak parte-hartze handia duelako, eta batzuetan, bost edo sei ahotsek esku hartu behar dutelako".

Bestalde, zarzuela ondo egiteko, alde batetik, kantuan, eta bestetik, antzezten ere jakin behar da. Kantuan ondo zekiten elkartekoek, Arrasate Musikaleko kantu ikasleak dira-eta. Baina antzezpena, hori ikasi egin behar izan dute. Elkarteko hainbat partaidek esaten digutenez, "abesteak baino, antzezteak sortzen digu urduritasun handiena".

**AMODIOZKO ISTORIOA**

Izaskun Murgia Elkarte Lirikoa 2000. urtean sortu zen, Arrasatek sasoi baten bizi izan zuen zarzuelarekiko zaletasuna berpizteko asmoz. Urte hartan bertan egin zuen estreinaldia, *La tabernera del puerto* zarzuelarekin. Iaz, *Katiuska* aukeratu zuten. Aurtengo prestatu duten zarzuelak, haiek baino konplikatuagoa izateaz gain, tonu aldaketa ekarri du, aurrekoekin alderatuta dramatikoagoa delako.

*Los Gavilanes* Frantziako kostaldeko arrantzaleen herri baten dago girotuta, nahiz eta elkarteak Euskal Herrira ekarri duen. Herriko seme bat neska batekin maiteminduta dago, baina neskaren amak ezkongai hobea gura du alabarendako. Hori dela eta, mutila Perura joango da, dirutza egiteko asmoz. Neska beste batekin ezkonduko da, eta alaba bat izango du, baina gutxira ama hil egingo da. 30 urteren buruan, protagonista herrira itzuli, eta alabarekin maiteminduko da.

**OPERATIK GERTUAGO**

Musikaz Bergarako Orkestra Sinfonikoa arduratuko da. Alfredo González zuzendariak dioenez, "zarzuela guztiak, genero aldetik, antzekoak dira, baina hau dramatikoa da, eta horrek operarekiko gertutasun handiagoa ematen dio. Komedia uneak ere baditu, eta garrantzitsua da musika egoera bakoitzari egokitzea".



AITOR URIZAR

Izaskun Murgia Arrasateko elkartekoek eta Bergarako Orkestra Sinfonikoko musikariek eskainiko dute zarzuela.

*Izaskun Murgia elkartekoek egin dituzten zarzueletatik gaitzena da hau*

*'Los Gavilanes', zarzuela izan arren, dramatikoa da, eta horrek operatik gertu uzten du*

*Euskal Herriko kostaldeko herri baten oinarritutako amodiozko istorioa kontatzen du*

## 50ean hasitako tradizioa

**Orain, Amaia Udal Antzoki ederrean ikusten dituzte zarzuelak mondragoetarrek eta debagoiendarrek; baina lehen, zarzuela Arrasaten loratu zen garaian, Zaldibar pilotalekuan, San Juan etxebizitzen plazan eta Gurea zinema zaharrean izaten ziren. 1950eko apirilean, San Markos Eguna ospatzeko, *La marcha de Cádiz* zarzuela jokatu zuten herritarrek; hala ere, 1955a izan zen urte erabakigarria, Lope de Rueda talde profesionala etorri zen-eta Mondragoera. 1955. eta 1956. urte artean, *La Dolorosa, Los Claveles, La del manojo de rosas* eta *El Caserío* jokatu zituzten. Taldea joan, eta arrasatearrek hartu zuten zaletasun hori ez galtzeko ardura, eta *Katiuska, La tabernera del puerto, Los Gavilanes, El Caserío, Viento Sur* eta *Mirentxu* antzeztu zituzten. 1999an, Izaskun Murgia elkartea sortu aurretik, *El Caserío* jokatu zuten berriro ere.**

## Egileen laudorioarekin

**Arrasaten zarzuelak bizi iraun badu, neurri handi baten, herritarrek eurek azaldutako interesarengatik izan da. Baina ez pentsa zarzuelak herritarrek antolatu izanak kalitateari eragin zionik. Profesionaltasun handia erakutsi zuten mondragoetarrek. Askotan, zarzuelen egileak eurak ere herrian izan ziren, antzezpenak ikusteko edo zuzentzeko, eta gogoz txalotu zuten mondragoetarren lana. Jesus Guridik bere *Mirentxu* ikusi zuenean, honela esan zuen: "Hunkitu egiten nau ikusteak Mondragoe bezalako herri batek nire *Mirentxu* ezin hobeto antzeztu duela". Guridiren *El Caserío*-k ere arrakasta handia izan zuen, eta Irunen eta Gasteizen ere eskaini zuten arrasatearrek, oso kritika onarekin, gainera. Bestalde, *Viento Sur* zuzentzera Jesus Aranbarri, zarzuelaren egilea, etorri zen Arrasatera, 1958an, abenduan.**

## Aktore eta musikariak

**Hauek izango dira Los Gavilanes-eko aktore eta kantariak: Mikel Balanzategi, Tomás Axpe, Mikel Izurrategi, Luis Okina, Naroa Elortza, Maribel Hernández, Ruth Osinaga, Cristina Cubillo, Enrike Altuna, Mertxe Salaberri, eta Olatz Amozarrain. Javier Burgos da eszena zuzendaria.**



**MIKEL BALANZATEGI**
"Juan indianoa"
"Antzezteak ematen dizkit buruhauste handienak", dio Mikelek. *La Tabernera del Puerto*n ere, protagonista izan zen Mikel.



**MERTXE SALABERRI**
"Renata"
Juanen koinata da, "aberats berri handi-mandi xelebrea", dio abeslariak. Paper txikia den arren, pozik ibili da Mertxe.



**MIKEL IZURRATEGI**
"Clarivan"
Herriko alkatea da, "diruzalea eta mikeleteen sargentoarekin beti haserre dabilena. Paper komikoa da", dio Mikelek.



**NAROA ELORTZA**
"Nita"
Renataren alaba da, hau ere, diruarekin itsututa. Hirugarren zarzuela izan arren, oraindik urduri ipintzen dela dio Naroak.



**IRENE AGIRRE**
Orkestrako kidea
"Zarzuela baten jotzea zaila da, oso adi ibili behar zarelako aktoreek zer egiten duten", dio biolin jotzaile honek.

# Abenduak 13-20

**Leire Kortabarria** / Zuon ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguazteneko eguerdiko 12:00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: **kultura@goiena.com** • Tel.: **943 76 03 97** • Faxa: **943 76 29 77**

## ANTZERKIA

### ARRASATE

► ***Los Gavilanes* zarzuela** eskainiko dute Izaskun Murgia Elkarte Lirikoak eta Bergarako Orkestra Sinfonikoak gaur, bihar eta etzi, Amaia Udal Antzokian, 19:30ean.

### BERGARA

► **Ipuin kubatarrak** kontatuko ditu Javi Barandiaranek gaur, egubakoitza, gaztetxean, 22:30ean.

### OÑATI

► ***Nire ametsak ponpa moduan*** antzerki lana eskainiko du Zugai taldeak gaur, egubakoitza, gaztelekuan, 22:30ean.

► ***Non dago maleta?*** umeendako antzerki lana eskainiko du Hiruki taldeak bihar, zapatua, Errekalde Herri Eskolaren egoitzan, 17:00etan.

## JAIAK

### ARRASATE

► **Gizonezkoen strip-tease saioa** izango da bihar, zapatua, Aterpe tabernan, 00:30ean eta 01:30ean.

### OÑATI

► **Jesusen Jaiotzaren ospakizuna** izango da hilaren 19an, herriko plazan.

## DEIAK

### ARRASATE

► ***Baserritik bizitzeko ilusioa*** hitzaldia egingo du Felix Ajuriak hilaren 17an, udaletxean, 19:00etan.

► ***Nekazaritza eta globalizazioa*** gaiaren inguruko berbaldia egingo du Paul Nicholsonek hilaren 18an, udaletxean, 19:00etan.

► **Landareen eta fruta arbolen tratamenduaren** gaineko hitzaldia izango da hilaren 19an, Uribarriko erretiratuen egoitzan, 17:00etan.

### BERGARA

► **Gabonetako argiak piztu eta jaiotza ipiniko dute** bihar, zapatua. Jaiotza udaletxean ipiniko dute.

► **Txokolate eta gaztaina erre jana** antolatu du Gazte Asanbladak etzirako, domeka, herriko plazan, 18:00etan.

### ELGETA

► **Kontseiluak Ekintza Plana aurkeztuko du** hilaren 18an, eguaztena, liburutegian, 21:00etan.

### OÑATI

► **Gaztelekuak antolatutako Argazki Rallyaren sari banaketa** izango da gaur, egubakoitza, gaztelekuan, 19:00etan.

► **GKE-en azoka eta erakusketa** izango da bihar, zapatua, herriko plazan, 10:00etatik 14:00etara, Elkar-Hezi ikastetxeak, Oñatiko gaztelekuak eta Oñatiko Udalak antolatuta.

► ***Batxilergoaren ondorengo ikasketak*** izenburuko hitzaldia izango da astelehenean, hilaren 16an, Txantxiku Ikastolan, 18:30ean.

► **Ekintza Planaren gaineko batzarra** antolatu du Kontseiluak hilaren 17rako, martitzena. Kultura etxean izango da, 19:00etan.

► ***GKEen eginkizuna globalizazioaren aurrean*** izenburuko hitzaldia egingo du Aitor Zabalgogeazkoa Medicos sin Fronteras-ko ordezkariak abenduaren 18an, eguaztenean. Gaztelekuan izango da, 20:00etan.

## MUSIKA

### ARETXABALETA

► **DJ Orlan-ek** musika emanaldia egingo du gaur gauean, egubakoitza, Gaztetxean.

► **Donostiako Ereski Abesbatzak** emanaldia egingo du bihar, zapatua, herriko Eliza Nagusian, 20:00etan.

► **El Rufián** taldearen kontzertua izango da bihar gauean, zapatua, Gaztetxean. Segidan, disko jartzaileak izango dira.

► **Leizarra Musika Eskolakoek** kontzertuak eskainiko dituzte hilaren 16tik 20ra bitartean, euren egoitzan, 18:00etan. 17an, Gabon kontzertua izango da, Kurtzebarri Eskolan, 18:00.



► MUSIKA

### REINCIDENTES TALDEAK DISKOA AURKEZTUKO DU JAM-EN

Reincidentes taldeak azken lana, *Cosas de este mundo* izenekoa, aurkeztuko du Bergarako Jam aretoan bihar eskainiko duen kontzertuan. Disko horretan taldeak erakutsi nahi izan du ez dela iraganari begira geratzen eta ez duela lehengo ospearen itzalera bizi nahi. Euren sustrai andaluziarretatik abiatu dira, ohi bezala, baina ukitu berria eman diote euren estiloari, punk eta rock hiritarraren ekarpenarekin. Gaiei dagokienez, batik bat, mundu zabaleko arazo handiei erreparatzen die Reincidentes taldeak, edozein auzotan gertatzen diren kontuak ahaztu barik. Horrekin guztiarekin, disko argi, zuzen eta zorrotza egin dute. Kontzertu berean Zirrosis eta Afónikos Perdidos taldeek ere joko dute.

**Non:** Bergarako Jam aretoan. **Noiz:** abenduak 14, zapatua. **Ordua:** 22:00. **Txartelak:** 12 euro; 10, aldez aurretik.











## GABONETAKO KONTZERTUA, ETZI, OÑATIN

Bihar, zapatua, aurkezpen kontzertua eskainiko du Oñatiko Banda Gazteak, Santa Anan, 19:30ean. Bestalde, etzi, domeka, Oñatiko Bandak, txistulari taldeak, eta herriko lau abesbatzek Gabonetako emanaldi berezia egingo dute, Mikel Deunaren parrokian, 19:00etan.

### BERGARA

► **Musika Eskolak** kontzertua eskainiko du gaur, egubakoitza, pilotalekuan, 20:00etan.
► **Bergarako Haize Boskoteak** emanaldia egingo du bihar, zapatua, udaletxeko areto nagusian, 19:30ean.
► **Techno jaialdia** izango da datorren egubakoitzean, hilaren 20an, Jam aretoan, 00:00etan hasita, hainbat disko jartzaileren parte-hartzearekin.

### OÑATI

► **Sorkun, Miztura, Fun-tsak, DJ Kir-rin eta DJ Mariren** musika emanaldia izango da bihar, zapatua, gaztelekuan, 22:30ean.
► **-Gailu** taldearen kontzertua izango da etzi, domeka, gaztelekuan, 20:00etan.
► ***Sutargi* ikuskizuna egingo du** Aukeran dantza taldeak abenduaren 20an, Santa Ana antzokian, 22:30ean.

## IKASTAROAK

### ANTZUOLA

► **Margo dekoratibo ikastaroa** izango da urtarriletik ekainera. Izena emateko azken eguna abenduaren 20a izango da, datorren egubakoitza. Horretarako, jo udaletxera.

### OÑATI

► **Joan den astean hastekoa zen drogen gaineko ikastaroa** bihar hasiko da, zapatua. Bigarren jardunaldia hilaren 21ean izango da.

## ERAKUSKETAK

### ARRASATE

► **San Clemente proiektuari laguntzeko** Debagoieneko margolarien lanen erakusketa eta salmenta antolatu dute, Harresi aretoan. Ordutegia: 18:00etatik 20:00etara astean barrena eta 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara zapatuetan eta jaiegunetan.

### BERGARA

► **Idoia Elexpururen** margo erakusketa dago ikusgai Nahikari tabernan, abendu bukaerara arte.
► **Bergarako margolarien erakusketa** izango da, hilaren 20tik 29ra, kultura etxean.

### ESKORIATZA

► **Euskarazko liburuen eta informatika gaien** erakusketa izango da, abenduaren 13tik 15era, kultura etxean, 18:00etatik 20:00etara.

### OÑATI

► **Herriko hamahiru artistaren lanen** erakusketa izango da ikusgai, abenduaren 16tik 29ra bitartean, gaztelekuan.

# Zinema

### ARRASATE

■ **ALAI ZINEMA**

***El planeta del tesoro***
Egubakoitza: 19:00, 22:00.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:00.
Astelehena eta martitzena: 19:00, 21:30.

■ **RIALTO**

***Miedo punto com***
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.

### BERGARA

■ **NOVEDADES**

***Ocho mujeres***
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:30.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30.

***Film labur emanaldia***
Asier Altunaren lau film labur.
Eguaztena: 20:00.

***Deseo***
Eguena, zine kluba: 20:00.

### OÑATI

■ **SANTA ANA**

***El crimen del padre Amaro***
Egubakoitza eta zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

***Las supernenas***
Domeka: 17:00.

***Ghost world***
Eguena, zine kluba: 20:00.

### EIBAR

■ **UNZAGA**

***Harry Potter y la cámara secreta***
Egubakoitza: 19:00, 22:15.
Zapatua: 16:45, 20:00, 23:00.
Domeka: 17:00, 20:00.

### GASTEIZ

■ **GURIDI**

***Muere otro día***
Egubakoitzetik domekara: 17:00, 19:45, 22:30.

***Santa Claus 2***
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.
Domeka: 17:30, 20:00, 22:30.

***El esmoquin***
Egubakoitzetik domekara: 17:00, 19:45.

***Harry Potter y la cámara secreta***
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 20:15, 22:45.
Domeka: 17:00, 20:15.

***La hermandad***
Egubakoitza eta zapatua: 22:30, 01:00.
Domeka: 22:30.

***Barco fantasma***
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.
Domeka: 17:30, 20:00, 22:30.

***Ocho mujeres***
Egubakoitza: 17:30, 20:15, 22:30, 01:00.
Zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.
Domeka: 17:30, 20:00, 22:30.

***El planeta del tesoro***
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:45, 22:30, 01:00.
Domeka: 17:00, 19:45, 22:30.

■ **MIKELDI ZINEMAK**

***Balzac y la joven costurera china***
Egunero: 17:15, 20:00, 22:30.

***Muere otro día***
Egunero: 17:30, 20:15, 22:45.

***Un final made in Hollywood***
Egunero: 17:15, 20:00, 22:30.

***Santa Claus 2***
Egunero: 17:30, 20:15, 22:45.

***Las reglas del juego***
Egunero: 17:15, 20:00, 22:30.

***Barco fantasma***
Egunero: 17:15, 20:00, 22:30.

***El caso Bourne***
Egunero: 17:30, 20:15, 22:45.

***El planeta del tesoro***
Egubakoitza: 17:30, 20:15, 22:45.
Zapatua eta domeka: 16:30, 18:30, 20:30, 22:45.

***Harry Potter y la cámara secreta***
Egunero: 16:45, 19:45, 22:45.

***Fantasiazko zinemaren astea***

***La bestia del reino***
Astelehena: 20:00.

***La cosa***
Martitzena: 20:00.

Martitzena, ikuslearen eguna.

■ **FLORIDA-GURIDI**

***Mi gran boda griega***
Egubakoitza: 17:00, 19:45, 22:30, 01:00.
Zapatua: 12:30, 17:00, 19:45, 22:30, 01:00.
Domeka: 12:30, 17:00, 19:45, 22:30.

***Laagan***
Egunero: 20:00.

***Al límite de la verdad***
Egubakoitza: 17:00, 19:45, 22:30, 01:00.
Zapatua: 12:30, 17:00, 19:45, 22:30, 01:00.
Domeka: 12:30, 17:00, 19:45, 22:30.

***Last order***
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.
Zapatua: 12:30, 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.
Domeka: 12:30, 17:30, 20:00, 22:30.

***Kamchatka***
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.
Zapatua: 12:30, 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.
Domeka: 12:30, 17:30, 20:00, 22:30.

***Los lunes al sol***
Egubakoitza: 17:00, 19:45, 22:30, 01:00.
Zapatua: 12:30, 17:00, 19:45, 22:30, 01:00.
Domeka: 12:30, 17:00, 19:45, 22:30.

***El hijo***
Egubakoitza eta zapatua: 22:30, 01:00.
Domeka: 22:30.

***Happy times***
Egubakoitza: 17:30, 20:00.
Zapatua eta domeka: 12:30, 17:30, 20:00.

***Olentzero***
Egunero: 12:30, 17:00, 18:30.

■ **STER ZINEMAK**

***Santa Claus***
Egubakoitza: 18:10, 20:20, 22:30.
Zapatua: 16:00, 18:10, 20:20, 22:30, 00:40.
Domeka: 16:00, 18:10, 20:20, 22:30.

***Chihiroren bidaia***
Egunero: 17:35.

***El planeta del tesoro***
Egubakoitza: 18:15, 20:15, 22:15.
Zapatua: 16:15, 18:15, 20:15, 22:15, 00:15.
Domeka: 16:15, 18:15, 20:15, 22:15.

***Minority report***
Egunero: 20:00, 22:50.

***Al límite de la verdad***
Egubakoitza: 18:20, 20:25, 22:30.
Zapatua: 16:10, 18:20, 20:25, 22:30, 00:35.
Domeka: 16:10, 18:20, 20:25, 22:30.

***Harry Potter y la cámara secreta***
Egubakoitza: 18:35, 21:45.
Zapatua: 15:30, 18:35, 21:45, 00:55.
Domeka: 15:30, 18:35, 21:45.

***El viaje de Chihiro***
Egunero: 17:35.

***Barco fantasma***
Egubakoitza: 18:25, 20:20, 22:20.
Zapatua: 16:25, 18:25, 20:20, 22:20, 00:20.
Domeka: 16:25, 18:25, 20:20, 22:20.

***Muere otro día***
Egubakoitza eta domeka: 17:20, 20:05, 22:45.
Zapatua: 17:20, 20:05, 22:45, 01:25.

***El caso Bourne***
Egubakoitza eta domeka: 20:00, 22:25.
Zapatua: 20:00, 22:25, 00:55.

Eguaztena, ikuslearen eguna.

■ **YELMO CINEPLEX**

***Muere otro día***
Egubakoitza eta zapatua: 16:15, 18:50, 21:35, 00:20.
Domeka: 11:55, 16:15, 18:50, 21:35.

***El caso Bourne***
Egubakoitza eta zapatua: 15:20, 17:40, 19:55, 22:20, 00:40.
Domeka: 11:40, 15:20, 17:40, 19:55, 22:20.

***Mi gran boda griega***
Egubakoitza eta zapatua: 15:40, 17:35, 19:40, 21:50, 23:55.
Domeka: 11:45, 15:40, 17:35, 19:40, 21:50.

***Miedo punto com***
Egubakoitza eta zapatua: 22:15, 00:20.
Domeka: 22:15.

***Una casa de locos***
Egubakoitza eta zapatua: 17:40, 20:00, 22:20, 00:40.
Domeka: 17:40, 20:00, 22:20.

***El planeta del tesoro***
Egubakoitza eta zapatua: 16:00, 18:00, 20:00, 22:00, 00:00.
Domeka: 12:00, 16:00, 18:00, 20:00, 22:00.

***Santa Claus 2***
Egubakoitza eta zapatua: 16:25, 18:30, 20:35, 22:40, 00:40.
Domeka: 12:15, 16:25, 18:30, 20:35, 22:40.

***Harry Potter y la cámara secreta***
Egubakoitza eta zapatua: 15:30, 18:30, 21:30, 00:30.
Domeka: 12:00, 15:30, 18:30, 21:30.

***El viaje de Chihiro***
Egubakoitza eta zapatua: 15:25, 17:50.
Domeka: 11:30, 15:25, 17:50.

***Te queremos, Eugenio***
Egubakoitza eta zapatua: 16:05, 18:05, 20:15, 22:15, 00:20.
Domeka: 11:40, 16:05, 18:05, 20:15, 22:15.

***Barco fantasma***
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 18:50, 20:40, 22:30, 00:25.
Domeka: 12:15, 17:00, 18:50, 20:40, 22:30.

***XXX***
Egubakoitza eta zapatua: 16:30, 18:45.
Domeka: 11:50, 16:30, 18:45.

***Al límite de la verdad***
Egubakoitza eta zapatua: 16:10, 18:10, 20:10, 22:10, 00:10.
Domeka: 11:45, 16:10, 18:10, 20:10, 22:10.

***800 balas***
Egubakoitza eta zapatua: 16:30, 19:00.
Domeka: 11:55, 16:30, 19:00.

***La edad de hielo***
Egubakoitza eta zapatua: 15:55.
Domeka: 12:05, 15:55.

***El dragón rojo***
Egubakoitza eta zapatua: 21:40, 00:15.
Domeka: 21:40.

***El esmoquin***
Egubakoitza eta zapatua: 16:20, 18:25, 20:30, 22:35, 00:35.
Domeka: 12:15, 16:20, 18:25, 20:30, 22:35, 00:35.

***Minority report***
Egubakoitza eta zapatua: 21:00, 23:50.
Domeka: 21:00.

Astelehena, ikuslearen eguna.

***Los lunes al sol:* ●●●●● / *Minority report:* ●●●● / *Ocho mujeres:* ●●● / *El dragón rojo:* ●●● / *La edad de hielo:* ●●● / *El crimen del padre Amaro:* ●● / *800 balas:* ●●**

TXARRA:● ESKASA:●● BALEKOA:●●● ONA:●●●● BIKAINA:●●●●●

## KRITIKA

### HISTORIAS MÍNIMAS

PUNTUAZIOA: ●●●

**ZUZENDARIA:** Carlos Sorin.
**AKTOREAK:** Javier Lombardo, Antonio Benedictis, Javiera Bravo.

Oso zaila da zinemaldi batean ikusleak, kritika eta epaimahaia ados jartzea, baina batzuetan gertatzen da. Eta hori gertatu zen, esaterako, Donostiako azken Zinemaldian *Historias mínimas* filmarekin. Carlos Sorinen lanak, txalo zaparrada ugari lortzeaz gain, epaimahaiaren sari berezia eskuratu zuen.

*Road movies* generoaren barruan sailka dezakegun film hau Argentinako Patagonian dago kokatuta. Modu gurutzatuan, hainbat arrazoirengatik 300 kilometro egin behar dituzten hiru pertsonaiaren istorioak kontatzen dizkigu: batetik, ikusmen arazoak dituen adineko gizon bat urte batzuk lehenago etxetik ihes egindako txakurraren bila joango den istorioa kontatzen zaigu; bigarren pasadizoa komertzial bidaiari baten gainekoa da. Horrek gustuko duen emakume baten semeari tarta bat opari egin nahi dio; hirugarren istorioan, ama gazte batek telebistako lehiaketa baten parte hartzeko dituen duda-mudak ikusiko ditugu.

Istorio horiek gizaki apal batzuen bizitzen gune zehatzak erakusten dizkigute. Pertsonaia horiek munduko toki ia galdu baten bizi dira, eta ez dira zineman sarritan agertzen diren horietako-



ak. Pertsonaia arrunt horiek, bizitzako momentu baten, aurrerapauso bat ematea erabakiko dute, eta poltsikoko abentura antzeko baten murgilduko dira. Oso abentura mugatuak dira, baina eurendako, garrantzi handikoak. Hasitako bidaia horietan, pertsonaia nagusiek bidean dauden beste pertsonaia batzuk ezagutuko dituzte. Eta horretan datza filmaren erakargarritasuna: umorez eta samurtasunez deskribatzen dizkigu pertsonaien gizatasuna eta elkarren artean sortzen diren elkartasun loturak.

*Historias mínimas,* apaltasunari, zuzendariak lortzen duen tonuari eta aktoreen lanari esker, gustura ikusten den filma da, baina baditu hutsune batzuk ere: garrantzitsuena telebistara doan neska gaztearen istorioa da. Atal hori oso gutxi garatuta dago, bakarrik filmaren hasieran eta bukaeran azaltzen zaigu, eta horrela, ia ezerezean gelditzen da. Beste bi istorioek hobeto funtzionatzen dute. Horregatik, film hau lan atsegingarria izatea lortzen dute.

ANTONIO ZABALA

SARE inmo f3 inmobiliaria
Erdiko kalea 26
ARRASATE
943 79 12 79

**ETXEBIZITZAK**

**ARRASATE**
• 98 m², 4 logela, oso eguzkitsua eta garajearekin.
• 110 m². Hiru logela, bainugela bi, egongela eta ganbara. Oso ederra. Oso eguzkitsua eta duela urtebete berritua.

**BERGARA**
• 75 m², eguzkitsua eta 3.500m²-ko lursail komunitarioarekin: parkinga, txokoa...Prezioa: 126.212 euro/ 21.000.000 pta.
• 51 m², egongela, 3 logela, sukaldea, bainugela eta ganbara. 16.000.000 pta.

**LOKALAK**
• **Arrasate**: Ferrerias kalean 201 m²-ko lokala salgai. Errentan hartzeko aukera.
• **Arrasate**: Altamiran 98 m² salgai. Erakusleihoa dauka eta oso ondo dago. 10.000.000 pta.
• **Bergara**: 230 m²-ko lokal industriala salgai. Lehenengo solairuan dago eta 1.000 kiloko karga-jasogailua dauka. Prezioa: 12.500.000 Pta.
• **Bergara**: 400 m²-ko pabiloi industriala errentan ematen da.
• **Oñati**: 40 m2-ko lokala errentan ematen da. Erakusleihoa dauka.

# Iragarki sailkatuak

**1. ETXEBIZITZAK**
101. SALDU
102. EROSI
103. ERRENTAN EMAN
104. ERRENTAN HARTU
105. ETXEAK OSATU
106. BESTELAKOAK

**2. GARAJEAK**
201. SALDU
202. EROSI
203. ERRENTAN EMAN
204. ERRENTAN HARTU
205. BESTELAKOAK

**3. LOKALAK**
301. SALDU
302. EROSI
303. ERRENTAN EMAN
304. ERRENTAN HARTU
305. BESTELAKOAK

**4. LANA**
401. ESKAINTZAK
402. ESKAERAK
403. BESTELAKOAK

**5. IRAKASKUNTZA**
501. JASO
502. EMAN
503. BESTELAKOAK

**6. MOTORRA**
601. SALDU
602. EROSI
603. ALOKATU
603. KONPONDU
604. BESTELAKOAK

**7. ANIMALIAK**
701. SALDU
702. EROSI
703. EMAN
704. BESTELAKOAK

**8. DENETARIK**
801. SALDU
802. EROSI
803. EMAN
804. HARTU
805. TRUKATU
806. GALDU
807. AURKITU
808. BESTELAKOAK

**9. HARREMANAK**
901. AGURRAK
902. HARREMANAK
903. DEIAK
